



Iturria: *Azti-begia eta beste izkeribu zenbait*, Agosti Chaho (Patri Urkizuren edizioa).
Euskal Editoreen Elkarte, 1992.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/X/XahoAzti.htm>

AZTI-BEGIA ETA BESTE IZKRIBU ZENBAIT

Agosti Xaho

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Azti-Begia

I

Ekhi-begi, xuri-gorri argizale ederra! Nuiz phiztu zinen nuiz argitu, begitharte beltzuri gabia? Zu zirade munduko argia, egiazko argithurria, bethierezko Jinkuaren argitzala. Nur zuri so begiz-begi egon ahal daite? Nurk dakitza zure urthiak? Zu gagaineko korraletans leheni sorthu Giten axuri xuriena, Suge garbi Sugerik ederrena. Goixtiar izan zinen, goixtiar, egunezko izar ederra! Ulhunpetik hegaltza eta, oraiko lekhu berian, hegaltza, ukhuratuz zinen, urzo xuri, argizko txoria, egintzaro miretsgarri baten argitzeko.

Orhit duzia ikhusirik, Lehen-Sugia biribilkatzen mendez eta mendez handitzen, eta, lurtiarren izigarri eta izigai, lurpeko zazpi leziak zazpi burureki bethatzen? Orhit duzia LehenSuge hura ikhusirik, Jinkoiluaren harra bere khokotsian bezala, bere egongiak lurpian edo Ifernietan obratzen: Luharraultzia biltzen eta egiten, orai-oraino ungaratzen den ungarunetan?

Orhit duzia ikhusirik, luhidorra huretatik berhezten, itxasua behar mugetan ukhuratzen eta ohatzen; lurraldiak, belhar, lili, zuhain eta fruta, gizun eta ekhoiliar suberte ororeki, zure begiaren aitziniala agertzen, o begi leinhuratsia!

Aspaldi dizu, aspaldi! mundutto hunen lehen sortzaruak aspaldi! Lehen, eta geroz, iratzarririk zaude eta zabalik, gaiaren etsai, egunaren egile, denbora jakile, ikhusle eta erakasle ekhibegirari ederra! Zuk dakizu zuinen barna den Hurandia: zuk, beirina klar baten artetik bezala, ikhusuten dutuzu bere mendi thinieki itsasoihalak gordatzen eta estaltzen dutian lurraldi berriak oro! Zuk dakizu eia nula, gorrinkua arraultzian bezala, dagueen bildurik, biribilkaturik, lurraxalpian, lurbihotzian, iferniaren erdian, Lehen-Sugia: lehena bai eta ere herena, lurreko zaharrena, indarrez azkarrena, bethierezko Jinkuaren langilerik handiena.



II

Mende batek ehun urthe, Berrizaruak hamar mende, edo mila urthe txipi: hori beita dilubioko Hurte edo urte edo urthe-handia! eta hire lan eguna, o Leheren, Jinkuaren lan-suge harrigarria!

Denbora batek sei ehun mende, edo hiruretan hoge mila urthe txipi: hori beita lurraldi baten iraupena eta denbora; eta hire lokhaia, Berrizaro batetik bestera, o Leheren, zazpi burudun, Suge espantagarria!!

III

Lan egin duk, lan egin, Jinkuaren aitzinian, Leheren, Su izigarria! Errak-errak, zunbat aldiz Hurandiari utzi erazi dutian, bere ohe eta etzangiak txuku eta idor; hik eginik munduberri, gizunentzat herriberri: hori beita hire legia, hori beita hire eginbidia. Harrigile eder hiz, harrigile eder, eskurik ezpaduk ere, Leheren! Zunbat aldiz eztutu ore buztanak luherrri zaharrak egotxi, erre eta ilhaintu, luberriak orhatu, leinthu eta eraiki, bere mendi eta ordoki ororeki! Eztik ez bethi ber bidia jarraiki heguak! Eztuk bethi ber gunetan agertu eta itzali ekhi-begia! Oraiko Ipharra txaz Eguerdi, denbora batetik bestera lekhuz khanbiatu izan dutuk lurrungurian zeluko aziak.

Orai diala hiruretan hoge eta hemezortzi mende, ez gehiago, luak harturik iz, Leheren, lurgile handia. Lo-kurrunka hago, egunaldi bat eginik, eguerdiko lurburia hire zazpi burien burupe, Iphar hotzeko itxaso hotzetan buztana kharruntaturik. Badakiagu nun diren hire hatsharzilua eta leziak. Hanti duk erantzuten hire kurrunkaren herots ozena. Hanti Sugarrak odeietara jauzten eta hedatzen, eta hire elder gahuna burdun hura bezala, turrustatzen. Hire urzain batek emaiten dik lurrai ikhareria, hire igialdi batek, itxasuak nahasten eta thurbusten, mendiak kordoka erazten, o Leheren, Suge izigarria!

Goihenak oiuhu egiten badu Leheren, ihardesten deiok: Jauna! jaikitzen hiz goizeti, eta hasten duk hire egunaldia. Nurk dakitza khuntuz, hire lanurthiak eta logaiak, indarretan sarthu hizanez geroz, Leheren, Jinkuaren langile paregabial!

Orai lo hago egunaldi bat eginik, Leheren: egik-egik lo, gazte duk mundia, azkeneko Berrizarua huilan gerokua hurrun. Bost ehun eta hoge eta bi mendez eztuk berriz entzunen Goihenaren iratzar oiha. Egik-egik lo, Leheren, Jinko-sugia, lucraren seme gehiena: haurtto bat bere khuinan bezala, lubamian etzanik; lurra gai eta egun, bere ungurian daguelarik jurdunpa.

IV

Unguru-unguru dabila, galdu gabe bere bidia, lurbola unguraria; saihets bat bethi egunargian, beste bat ulhunitzalian; garaitiarren eguna aphaltiarren gai, baten ulhuntzia besten argitze; egunorozko unguraldian Uduriz-ukhuru dabila, hurian untziak bezala, itsasairian, lurruntzitto hau, igeri-igeri, bere urtheorozko ekhi-ungur'utzulian. Abentiaren hoge eta bat gerreneti, txaz, Eguerri eta Suberri; ordian beita sortzen bezala eta agertzen, lurraren eretzian, ekhi-begi egunezko izar ederra, axuri xuriena, sugerik ederrena.

V

Ukhuru segurki zaude, ukhuru, izar ukhuru ororeki, ekhi xuri munduko begi argia! Lurrungurian, badakizugu, urthiak hilabete dian bezain bat izar-korraletan sar-jelkhi, eretzez-eretz, egin uduri duzula. Korrale hurak dirade zure hamabi jauregiak; gorenik ekaina, zuintarik, begiz-begi, lurrari xuxen-so betzaizko, urthiak dutian egunik luzenetan.

Eder egunak gaihargiak eder! Gora zirade, ezinago gora, zelu zohardi izarbegidun, lurraren gaihestalgi, hegatz argia; argililizko sorho bazter gabia! Zutan ber bidez eta ber urhatsez, herrapidetarik kanpo, axur salduak artzainaren undoti bezala, ekhiari arrauka izar-xuriak, gaiez-gai, uduri dabilta! Udartian altxu bat, neg'artian beste bat, ud'eta negu zoharzelian, lau haroz gizonaren begiak, ikhusahalak ikhus ditzake urth'ungurian.

VI

Egunaz ekhi, gaiaz argizagi. Zuri niagozu, lurragun eta gaiekhi, argizagi zahar-berria! Zu zirade ilargia, hil eta phizten ziradian argia. Zure bethian, ilargibethia, haz eta urhentzen da hilabetia. Zu zirade *argizaria* aste eta gaihegunen izaria. Zureki haste hasi izan zen, hiruregunezko lehen *astia*. Zuin egun beitira *aste-lebena*, *astebartia*, astiaren azkena, *astizkena*. Batian gorapen bestian beherapen, hilabetez egiten duzu lurrungurian zure unguria, argizagi unguraria. Enikezu uste zihaurtarik dela zutan ageri den leinburia. Aitzitik, ni aiher nuzu lurrulhunnto bat ziradiala; gure lur hau beno txipiago, ez berritan, ez hogeietan, bena bai hiruretan hogeitan. Hirur edo bi egunez, lehen astian ulhunik zaude lur-ekhi-artian, ulhun zirelakoz zure egitez. Hanti harat, ageri zabilta, ekhibegiak argiturik saihetsungurian bazter bat, saihets-adarrak goiz-ibarrari adaturik; gero erdiz-oso zeliaren erdian, sar artino zure bethian, hamalauerren egunian.



Nula gorapenak hala beherapena: argitzez bezala ulhuntez bazabila; gaiharrari adarrez adar, goizbarreti zirelako ordian ekhiz argitia: berriz erakutsartino, zure bethian, bethierezko begithartia.

VII

Hilabetez, bere utzulia, argizagiak lurrungurian. Lurbolak ere bai berna urthe batez ekhi ungunian. Alkharren lagun badabilta nuizik-behin eretzez-eretz ekhiaren argibidian. Ordian da gerthutzen, *Eclips* erdarak deitzen dian, ikhugarri bat. Arhin eta igeri dabilta, lurbola ungunaria eta argizagi ziiharbola xuria. Bekhan dira eta llabur haien erezka igaran aldiak; hanbatez llabur eta bekhan ekhi eta argizagi *eclips* itzalaldiak; bakhoxak bere alde, laster beitegie ekhiaren eretzeti eretz-gainti. Lurbola ekhipian dabilala, argizagia bere bethian argizagiari lurritzalak *eclips* edo itzalaldi. Argizagia aldiz ekhipian daguela, haren itzaleretzian lurbola, lurtiarren ikhusiz, lurreti-gora ekhitzalaldi, eguntara gaihaldi, argizabalian ulhunbeltz.

Jarraiki bitza gogoz eta khunta, azti denak, hel aitzinian prometa bitza lur eta argizagi bidetan diradian baratguniak eta khurutxa bidiak itzalorenak eta minuta erdiak. Nur nahi den, aizinara, gertha ahal daite, gaiza hoioren orenen jakintsu eta jakile, azti eta belhagile.

* * *

ESKUZKRIBUAREN JARRAIA ARGITARAGABEA

Hersi gizonaren urhatsa, txipi besua, llabur esku-erhiak. Hartakoz ebaki eta egin behar ukhen dutu hanitxko izari, hariz lehenak izartzeko gogua kuntari kuntatzeko. *Ikhus-hunkikako* izari kuintiak eder, hurrun izariak ederrago: aztiak dakian bezala ikhus bideetan gogor izartzen? Xede bat ezagutuz beste bat mugatzen, jakinetarik jakin-beharrak bethi xuxen khuntatzen. *Heremia* bazter gabe lekhu eta gune orotan dagoke heremu unguniaren erdi-erdi, eta ez ihun ere haren bazter ungunia. Heremiaren uduriak, araeuz-araue, txipiz-txipi kurkuriak. Kurkuru ozkatu linatiak lau laurden khurutxe; laurden khurutxiak lauretan hogei eta hamar ozka edo artekila, kurkuru osuak hirur ehun eta hiruretan-hogei. Heremi ungunian, txipiz handi arauka izan ahal ditakian kurkuru eta laurden izariak oro, ber arte artekila eta ozkadura khuntian direla gaiza klar. Hauxe da egiatzko iza-

ria eta neurria zuneñi batian khuntu ederrez, lurreti gora, jakintu beitutuz aztiak, ekhi, izar eta argizagi izariak, hurrunguak eta lodi-unguriak.

Zorrotz da zorrotz gure begia, eguntara bezala gaitara, Ziberuko azti berri gaztia. Gaiza guziak ahal ezpadakituz ere begithipilez ikhus eta begista, zure injeinuz egin diokezu burarki eta largabista, hurrunak huilan txipiak handi, huilan hurrunian ikhustatzeko orai bezala geroko geruan, eta igaran-bethian deus ere ez umen da zure eretzian ulhun gorderik ez itzalik. Diradianak izanak eta izangeiak zure begien aitzinian argi dirade, Jinkuak emanik dohatsia, Jinkuaren haur egiatsia. Halaz othoi abia zakizku ulhungai huntarik argizagei eta goizekhi, solta bidian aitzindari, ardi herratu gaxo hoier artzain, gure jakin gabian utsu-zain. Zuk erran eta ikhasi dereikuzu, nula izan zen luharrautziaren egintsarua eta sortzapena: lurbola hunen egile eta berrizale Leheren-Sugia. Gogoz hartu-ukhen diti-zugu sei ehun mendetako lurraldi iraupenak eta denborak, hamar mendetako berrizaruak: Leheren-Sugiaren lo-denborak eta lanurthiak. Zuk erranik badakizugu jagoiti nula dabilta lurrungurian, argizagiaren hilabetezko ungunu utzuliak, amust-egunak eta itzalgaiak; lurraren egunorozko ungunaldiak, urtheorozko ekhi-unguru-utzuliak: ekhi xuriaren hamabi hilabete jauregiak, izar korralez-korrale / sar jelkhi uduriak; ekhi eta argizagi *eclips* ikhugarriak. Bere argizagi lagun txipiareki bere bakharrik othe dabila, gure lurbolatto hau, ekhi-khanberan, gelhari bakhoxa ala othe dutu bere khidiak, begi hutsez, gizonak, hurrun ulhunian, ikhus ahal ezitza-kian, lurbola ulhunak? Izar uste dugunetarik zunbait ez othe lizate, hurrunez txipi lur-argizagi? Egia deia, uduripen bat argizagiaren beixkura itzalak, gizon abar haxe dun baten itzalak direla? Erraguzu: Zuri beha gaudetzu: Ziberuko azti zuhur gaztia, largabista eta beirarki dun aztia, hainbeste egun gorritz, hainbeste gai xuriz, zohar zelian zer ikhusi duzu? Othoi, egia erraguzu!

Ikhusi diat eguerdiko ekhigorrian arrano beltza, harbotxiatarik hegallak hedatzen, ekhibegiari begiz-begi, aztapar khakuak txilintxan, txori ororen errege, petigora xuxenka hegaltatzen: goraz-gora, hurrunez txipi, ainhera beno txipiago zelu gagainian milu beixkura bat bezala gordatzen eta galtzen. Bethi gorago aizia hotzago; lurraren ubel ungunian hogei bat lekhuaz goratuz geroz arranak ez txorik aiziaren bizi gordinez eztiroke hatsik har, gagaineko aire xotil mingarrian. Hori zihauerek borogatuz daki-zu arrano hegaltari ederra. Hartakoz ere behar bezain apha/bara eta ukhuratzen badakikezu, zure hegaltari ungunian bi lekua gora;hanti zure habia eta humetara jaitx eta aphaltzeko, aphaltzez handi arrastirian, arrano handi txori ororen errege!



Nurat habila, arranua, bi hegalez airian, hain gorarik ekhi xuxenian? Nahi othe duk egin lurretik ekhira juan jin bat? Gogo emak hire buria, har eztezan burhunguria! Hain zorrotz delarik hire begia eztiik orano sekula jakin ikhusi zuinen gora den ekhibegia. Nahi duk egin lurretik ekhiala juan jin bat arrano beltz hegal azkarra? Bide luzian akhit haite; bahintz ere azkarrago ukha haite. Ehun urthe bizi ahal hizalarik, hogei eta hamarretan ehun urthez bizirik ere, gei ostatiala, heltu gabetarik, zaharrez, ekhibidian hil haite. Ekhiala nahi duk egin bide arrano gaizua! Har ahal dirok hireki zunbait urthe egunen anhua. Lurrunguruti jalkhi eta, batere ukhuratu ez baratxtu gabetarik, egunez ehun eta hemeretzu urthe, hameka hilabete, eta hogei egunez ez haboro, ez gutiago, egin ahal dirok hel aldi bat: hogei eta hamar miliu lekhu: hain hurrun beitago, Subola, ekhi begi argia, Su argiaren uthur begia!

Herem'airian behigorri eder bat ala hanitx harzaurren unhide eta harzama, herexarik utzi gabe dabila, gure lurbola unguraria, herrape uthurri dun Behi gorria. Ebilzale batek, gai eta egun, lurrez lur, itxasoz itxaso batere ukhuratu gabetarik ebiliz ebili, orenian lekhu bat eginez, urthe eta hamar egunez egin ahal diroke, erdiz erdi, gure lurbolato hunen sabel unguraria. Lur kurkuria ozka eta, handiz txipi, ozka batetik bestera, hogei eta bost lekua arte khunta daite; lur unguru osuan bederatzu mila lekua.

Lurreti gora, ekhibidian, hogei milion lekuatan biderdi eta haren erdi gune berian beste lurbola ulhun argi baten, ekhi ungurian ungura bide. Zer izen eman behar dereizut, goiz-arratseko luhargi bizia, Espaina ibarreko, Iberia zaharreko, Uskal Herri ororen izar ederra!

Huilanez huilan, largabista xuxenian, sagarroia bere margotsian lantzader zorrotzez beztiturik den bezala, uduritzen zitzaitz harbola handi bat zure mendi mehar thini eta laphitz zorrotzeki, ekhi mirail luhidor zilharra! Ekhi begiti zu beno bi hurrunago, hanbatez ulhunago, gure lurbolak baditizu hur ibaiak, uhaitzak, eta itxas-thupak ekhiargiaren ithogarri odei eta lanhuak itzalgarrri. Ere ahal ditezu sekula eztuzun ikhusi bere hurrun ulhunian gure lur ulhuna. Jakizu bi biek, erdiz erdi, ber handigua duziela, ber lodi unguria. Gure argizagi txipiak bezala, badutuzu zure harahunetan, zure gorapenak eta beherapenak batian erdi edo saihets argi, zure bethian argienik. Enakikezu xuxen erraiteko zunbat Ilabur edo luze diren zure egun erregarriak, eta gaihargi beruak, zeren ekhiari hain huilan ziren. Hartakoz argizagi lagunik ez lagun beharrik ere eztuzu. Badakitatz zure zortzi hilabetezko urthiak eta urthe arozko ekhi unguru utzuliak. Ageri zaude, lur, behiaren khide. Zer izen eman behar dereizut heremu

sorhoko alhari argia? Ilhe argiz beztiturik uduri duzu ardi ilhe luze xuri bat. Zu zirade ardi xuria.

Ardi xuriti gorago, ekhiti bi milion lekuaren bidian, bada beste lur izar txipi bat ageri ekhi txinkha bat uduri, ekhi su-gar pian erre-phizturik. Hirur hilabetez harek egin ohi du ekhi ungurian bere unguru utzulia. Hark du izen txakur xuria.



II Zer den Ariel

Nur da edo zer da *Ariel*? Ainguru bat. Zer da *Ainguria*, eta nun-ago hartu du Uskarak *ainguru* izen hori? Hau dugula hitz eder horren zentzia: Indietako erdaraz, *angui*, amurio bat edo indar bat; grekez eta latiz *angelos*, *angelus*, mezuler bat.

Ainguriak dirade, holatan, Jinkuaren mezu-egilia; eta, hobeki erraitera, Jinkuaren berthutiak, Jinkuak lurrian eta zelian erabilten dituan photeriak, zuin beitira argizko ainguriak.

Eta Ifernuko gai-ainguriak dirade aldiz, mundutik eta gizonetik jalkihitzen diren indar-gaixtuak eta biziak, aphez-gisa mintzatzeraz, *Debriak* (erdaraz, *diabolus*, *diabolos*, *diablo*, *diable*).

Hitz arrotz, erdarak eman hoietarik, eztutu Uskara zaharrian khausitzen bihi bat.

Aski da jakitia ainguriek badutiela erdaraz bere izen kariusak, bere destinuaren eta kalitate hun edo gaixtuen markatzeko: *Mikael*, Jinkuaren gerlaria; *Gabriel*, Jinkuaren berthutia; *Ariel*, Jinkuaren indarra.

Arren beraz, entzun dianak kunpreni beza; kunprenitzen diana ikhus-beza Uskal-herriko gasetaren ainguria, *Ariel*.

Mendietarik horra zaiku hegaltaz, bere izen ederra zelian izkiribaturik balu bezala. Burutik agertzen zaio su-gar bat, zuinek markatzen beitu ezpiritiaren gogo-argia. Eskuineko eskia bihotzaren gainen, ixkerreko besuan khatia hautse phuska bat; iferniaren esklabo izan dela, orai sekulakoz Jinkuak libratu dila ezagutzera emaiteko.

Ariel, 1848-VI-30

III Errepublika zer den

Zer erran nahi da Errepublika?

Errepublika (Latinez *Res publica*) erran nahi da ororen hun den gauza.

Ah! hitz eder, hitz xarmagarria!

Oraino, maleruski, Populia, Errepublikaren izena bezik eztuk, abantailarik eta hunik bater'ez.

Populu, phenazalia, hire etsaiak ordu duk ezagut ditzakan.

Hire etsaiak nor dira? Gizon auher abariziosak eta karguen moienez aisetarzunian bizi nahi direnak.

Badea moienik hire etsaien benzitzeko? Moiena hire eskian duk.

Hura izanen duk, kargulant guziak heure botzez izendatzen batuk.

Hura izanen duk, gizon abariziosen plazen dihuria, Gobernamiendiak hire behar orduko emaiten balin badauk, ehunarendako hirur libera intres pagatuz.

Errakok kargulantak guti ditzan; kargulanten tratamendiak ttipi ditzan; eta heer behar gabe emaiten dien dihuria hire laguntzeko beira dezan.

Baldin-eta Gobernamiendiak ezpadauk dihur hori eman nahi, errakok zerbait phentsa dezan horetako; hire hartzedun abarizios ikharagarri horien petik jalgiteko.

Errakok, zorrak pagatu nahi tukala, bena denbora behar dukala.

Errakok Gobernamiendiari hire zorrez jabe dadila, hartzedun hek paperetan paga ditzala. Ordian, baldin eta ezpahute egurikatu nahi, hire lanaren moienez eta hire zergak eta phetxak ttipiturik izanez, hire zorrak emeki-emeki pagaturik izanen direla.

Langile ofizialiak; zien zorthia ere duk biziki tristia. Alde batetik ziezte guti pagatiak, beste aldetik duzie anhitz aldiz lana falta.

Tipi handiak oro sorthiak dira uros eta untsa bizitzeko.

Ordu duk, Populu-erregia. Jin-duk hire botz handiaren intzunarazteko tenoria. Erran ezak nahi dukala bizi aisetarzunian, lanian ariz, edo hil Franziairen eta Errepublikaren etsai guzier gerla emanez.

Ariel, 1848-VI-30



IV

Espainako berriak

Isabel segonda, Espainako erregina, bere hemezortzi urthetan, lohi-keriarik handienian itzulikatzen da. Izorra bada ere eztaiki nork ganik, baina, segur da ezteela Don Francisco errege senhar gaxoa ganik, zoinenez bere erregetarzunian emaztiarekin etzateko permisionerik ezpeitu.

General Narvaesek, haren ministruak, hilarazten ditu, desterrazten edo galeretarat igorten Errepublikano guziak. Amurekatik hobeki ezagutiak izan dituen, ezka balite, buruko eta berphuruko biloak arrasarazten dezte bizar nabelaz.

Zenbait jeneral karlista pasatu dira Espainialat Baionatik. Baionatik harma, zapata, bala, kartuxera eta bolbora igortzen ari dira Espainiako Heskual-herri guzietarat. Erraiten dute Nafarrua, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia altxatu nahi direla hanbat denbora gabe. Eztakigu xuxen-xuxena, ala Errepublikaren, ala Karlos VI erregiaren izenian gerla hasiko duten. Errepublikano bat mintzatu zere gisa huntan:

Eskualdun espainoleri
Eskualdunak!

Naziua koraje gabiak glorifikatzen dire nagusiak izatia.

Eskualdunek ez dute sekulan ezagutu.

Traituak izan dire, benzituak sekulan!

Gure aurrekuak, noiz eta Romanuen guardia aitzinekua formatzen zutenian, gidatzen zituzten biktoriarat, eta auk nahi zituztenian esklabo ezarri, Kantabri zaharren haur fierrak, aikien batailunak ondatzian, propagatzen zuten ez zela nausitzia ahal gizon libro sortu zirenaz eta libro hil nahi zutenaz. Libroak oien etorkitzetik Iberi aberatsian. Erregek engaiatu ziren kontratuz saintuenez ez zutela aikien deretxueri, fuerueri, libertatiari sekulan unkituko. Gizon hek traidoriak, tiranoak bethi diren bezala, kendu zaituzte libertatiak, bat-banazka, ukhaturik nazionetan diren dere-txo errespetablienak. Promesak egin zituzten, baina ez irukitzeko, promes oiek egin zituzten obekiago engainatzeko populu konfidantena, populu prankuena, populueta den federik oberena pasatzen denentzat. Uste dute kadena azpitan paratuak direla, hortan berek trunpatzen dire. Ez, ez! ez dire, Eskualdunak, orain len baino geiago, azpian ezarriak, ez

dire esklabo izarien; inori ez diote ezagutu manatzeko deretxurik. Populu lehenagoko orrek parra egiten du printze urgulusen prentenziuz, eta oien erreinua aguro akabatzeri dihoa. Leoinari uduria, kadena plako batez lotua balitz bezala, burnia autsiko ditu, eta bere mendi maitatu oiarzun guziek errepikatuko dute orren orru terriblia, paratuko beitu bere etsaiak lur-barnian.

Eskualdun maitiak, gora-zazue burua, ixtanpat malhurak eta soprikariuak beitiazia, eta zuen probintziak jakinaz dezaten munduari, Kantabro ezin malsatua izana, libro dela bere Mendarte eder eta gutiziatuetan.

Prest izan zaitetzte gerlako trunpetaren seinaliari, biktoriarat kurritzeko; fite arrabostuko da gure arroka urrunetan, eta soinuark erranen zitu: Altxa! Benzitu behar dugu edo hil, eta segurantza badut, libertateko bandera agertzen denian gure mendi puntetan, zuetatik bat ez dela izanen Eskualerriaren salbatzeko atzeratuko denik.

Ariel, 1848-VI-30



V Apehez bati arrapostu

Irakurtu ukhen dit, Parisen berin, *Internacionalin*, gure kontre izkiri-batu duzun letera ezinago-luzia, eta ezagutu dit mementin, zu zinela jaon aphez bat, sorthia Petharrin, Maule khantin, gaizki eskolatia Baionako hirin, doktor handi ignoranten artin, ignorant-urguiltsu-bat funtsin; eza-gun beita zure lumati nunko ziren, nur ziren eta zer ziren: eta berantiago gabe nahi deizut igorri bi hitz arrapostu, hobekienik dakidan Basaburuko uskara eijerrin, bena ez zurin.

Eta badakizia zer diferentzia den aphez baten eta gaseta egile baten artian? Diferentzia hau duzu, nurk-nahik bunet karratia kofiatzen ahal beitu, eta den astorik handieneti aphezakupiak aphez bat egin ahal beitiro: aldiz, ezpeita posible, zerbait talentu, eskola eta ezpiritu gabe, Frantziako argi handi huntan, libru eta gaseta publikatzia.

Hiruretan-hogei mendez, sei mila urthez, Iberia-Espainako Uskaldun eta Cantabre zaharrek eztizie ukhen aphezik, nahi bada ziren errelijione handitako, Jinkuaren adorazale, nazione fidel bat.

Hirur mila urthez, gezurrak eta jinko-falsiek ukhen ditizie mundu huntan bere elizak eta aphezak.

Haien erdarati jiten zaizie zien izena, *aphez*, *abbas*, *abbé*, hori erran nahi beita *Aita*; eta ber gisan Errumako Aita-Saintia erdaraz deitzen dizugu *Pape*, *Papa*.

Eztuzu nahi ukhen sinatu zure letera inpertinent errabiatia. Hala-hala, izen gabe diren haurrak dutuzu bastart edo aphez-sume.

Erran duzu, lehenik frantsesez, *Internacional*, Filipe erregezenaren gaseta zikhinian, *Uskal-herriko* lehen gaseta numerua, burutik galdu, presumitu, urguiltsu eta intenzione gaixtoko gizon erho gainti eli batez egi-nik izan zela.

Hola dutuzia, bestiagorik gabe, tratatzen populiaren eta laborari-gaxuaren adixkidiak? Erradazut, othoi, erraiteko hun bazira egiteko bezala, zer egin duzun zuk, orai-artino, laborariaren eta populiaren althe, elhez edo obraz, haien zorthie tristiaren irusago errendatzeko. Eta zu ziradia fedezko gizona? Eztuzia irakurri Ebangeluan, mehatxu izigarri bat, bere aurhidia eta anaia erho (*Racu*) deituko diana, ifernuko suiala kondenaturik izanen dela?

Hori deia, zure aldetik, gure eretzian, aphez saintu baten aitatarzuna, khiristi baten karitatia, aurhide hun baten amuriua eta legia? Erran baizik eztuzu gu girela ainguru errebelak, Infernuti ihessi eginak Uskal-herriaren galtzeko. Inkisizioneko tribunal garratza photerian balitz orano, zu zinate apheza gure bizirik erra-erazteko kapablia. Obrak erakats itzazu guk beno barnago duzula Uskal-herria bihotzian, haren zuzenak eta uhuria phensamentian. Seme hun batek bere ama maite dian bezala, gizon gazte batek bere bihotzeko izar-lilia maithatzen eta laidatzen dian bezala, nik Uskal-herri maitia dizut eraiki, lorifikatu eta laidatu. Uropako populien artian, sekula Uskaldunek egin etzian bezala. Zietarik nurk emanen dutu aprobak, nik gezurrik erran dudala, edo ene erranetan trunpatu nizala? Ni nuzu gizon bat, ezko khandera bat argi emanen hurtzen eta konsumitzen den bezala, bere odola eta bizia galdu eta khetan igorri dutiana, hogei urthe huntan, argi emaiteko, egiaren erakusteko gizonen artian. Nur zira zu, eta nun da zure eskia ene gisa hortan mintzatzeko? Ala ez othe zinatte zihaur, erran duzun Ifernuko ainguru beltza?

Kattalin eta Pethe diozu! Bego Kattalin suthondo zokhuan uruten ari-dela zarran-farran, edo lo-kurrunka, hautsian nahasirik, aphez zunbaiten gelhari gei. Bego Pethe zuzulian tutulu, zure ideaz aski sabant, orentt-huak badakitzalakkoz, *Pater*, *Ave*, eta *Credo*, *Deprofundis*-areki. Arte hortan Uropako nazione guziak argi bite, bere zuzenak fermoki baliatuz, bere bandera zaharrak edo berriak goraki altxatuz. Ekosesak, bere mendietan, laborari edo artzain, irakurten dizu egun-oroz, ez-solamente bere herriko gaseta bena bai ere Angleterrakoa: musikan trebe, lati hortan ere bai, Uskal-herriko hanitx aphez beno hobeki: Alemanietako laboraria hala-hala; aisetarzunian bizi beitiara; Uskal-herriko laborari gaxuak diren bezala, lanez phorrokatu, phetxaz eta legarrez leherturik, zorrek janik ezpeitira. Eta nun da, mundian, Irlandesetarik kanpo, gure Uskaldun gaxuak beno jente ignorantagorik? Txaz nazione aberats, gerlari, famatu bat, eta orai ezdeus, Franziazen eta Espainaren sankhapetan. Nurk kausatu du gure ulhunpe eta miseria, leze banna huntara erortia? Erregetiarrek, Aphezek.

Bakhotxak bere ofizio: apheza elizan, redaktorea bere gasetan. Etzitalia okupa gure mundu huntako aferez, nahi ezpaduzu zure beste munduko eta Errelijioneko sinhestiaz okupa gitian. Gaseta egile jalkhitzten bazira, ni pheredikari bilha nitezu, eta beharbada, nur nahik bezain untsa erran diokezut nun den *Ifernia*, nun den *Pharadusia*. Nigarretan, gosiareki, ignorantzian bizitzia net triste khausitzen dit, eta geruaren esparantxak enizu eski kunsolatzen emuts eta populu xehiaren izate tris-



tiaz. Beste bizibat uguriki gabe, nahi nitikezu mundu huntan berian punitu eta gaztigatu uhuin txipiak bezain untza handienak, puxant-urguilutsiak, lurreko tirano guziak. Dudarik eztuzu, hanitxentzat, mundu hau Ifernu bat eta Purgatorio bat bezala dela; nik aldiz mundu-huntan nahi nikezu ikhusi gizonen artian egiazko aurhidetarzun bat, justizia bardin bat, libertate perfekt bat, irusitate eder bat, bi hitzez erraitera, Jinkuaren legia, Jinkuaren argia.

Ipoteka zorren arraxataz erran duzuna, Errepublikak paseiura igor litiuala zor dun gaxuak, hori duzu zuk erran ignorant baten elhe thopia; eta Atharraztarrek buria arhintto diela beitiroz, nik legez, zuri erraiten deizut huntz baten buria eta begiak dutuzula, buru phezu bat, egunaz argia ikhusten ezten begi eli bat. Badakizu edo eztakizu, Franziaiko lurra hamalau miliart ipotekaz, eta Uskal-herria hanitx miliu zonez kargaturik dela. Zor hori edo pharte bat paper muneda batez gobementiak phaka ahal lirozu presentian; eta nula lurraren baliuak errespundi beliro paper horren abantzia, inkonbenientik elukezu, salbu eta beldurra, asinaten denboran bezala, paper sobera eta paper falsu eginez, asinat herri honek gal-lezan bere hatsarreko baliua, hori belizate aberatsen praubetze bat. Mundu huntako aferez hobeki erreenseinatia bazina, nahi bazunu egia erran edo jakin, bostehun gasetatan berere ikhusi zunukian oraikoz kes-tione horren debadiua: pharadusia-pharadusu, ezpeita txipi ipoteka, legar eta phetxa hoiek inportatzen dien intres ikharagarria.

Eta erranen deizut beste arrasu bat: orai-artinoko sistemak ireiten badu luzaz, Gobernamentiak edo norbaitek ezpalin badu gure eritarzunaren erremedio edireiten, laborarien aldeti izanen dela erreboilta gaitzik, Parisek sekula egin ez-tian, bezalakorik. Eta Jinkuak detsala Erregetiar tra-idore hoiek profeta ez-titian, berek erakharri dien estatu miserable hunez, berriz populiaren inganatzeko. Jerusalemeko profetak oihu egiten zian bezala, oihu egiten du Arielek:

Kunberti bite lurreko tiranuak, abarizius urgulutsiak, ez-ti bite bihotz-gogorrak; edo berriz jeitsi behar duke lurrial. Jinkuaren ain-guru gerlariak, berriz izanen da gaixtuen artian gizon-epaile eta odol-ixurte izigarri bat.

Jinko Jaona! ukhazu pietate zure populu triste hunez, eta eman iza-guzu, zure eta gure, barneko eta kanpotiko etsai ororen bentzitzeko indarra!

Ariel, 1848-VII-25

VI Espainiako berriak

Ministeriua dena nahasia da.

Erregina, mirakulu xume baten medioz, mundurat emaitera doa aur ñimiño bat, aitari dena iduria. Pako gaizua! Erraiten dute bere arizpa ere, Montpensier Dukesa, gibelaturik ez egon naiz, erditzera doala.

Madri le ez da anbat trankil, ispirituak ainitz inkiet dire. Nork daki. Naski Castellano fierrak balukete gutizia Bucharesteko populuak bezala egitia, Errepublika ezarriz. Kasu guzietan obekiago litake berant izatia sekulan baino. Arte hortan handiek irri egiten dute jende xehiaz, tiroka ilazi dute zeinbeit, bertze batzuek miseriaz leher eginazi eta eginazten; berek, denbora berian, konfidatu zaizkotan miliunak gordetzen dutelarik. San Fernando bankako direktora, bere etxe berian arrestatua mana da eta urbildik atxikia dela diote: Berari zaiona xoilki zazpi miliun manka dire! Erraiten dute ordena emana dela Gonzalez artzeko, zeren orrek ere bere phartetik bederatzi miliun falta beitu. Enfin, 152 miliun baizik, deusez bat, gutiago atxemaiten dute. Bainan hura, hortako, konsolamendu bat Espainolendako: erraiten dute anglez eskuadra bat, sir Ch. Napierez manatua, Portsmoutetik ilkia dela, ethortzeko Espainiako kostetarat, eta asiko dela bereala ordena duena segitzen, Britaniako gobernamentuak ez badu izaten Espainiak zor diona Montemolinek behar bada zor oiek pagatuko tu ezkontzen delarik, erraiten duten bezala, Angeletarrako erre-ginaren osabaren Cambridgeko dukearen alabarekin. Ez litazkete behar bada ere gutizian, txaketa gorri hek, manera berrian artzia Pasajia eta Caditze nola Gibraltar izan zuten bezala? Denborak erranen gaitu gauza oriek guziak, bainan Eskualdunak, mesfida zaitezte oien hitz ez-tiz eta oien diruz, gardian egon zaitezte traidore oitaz.

Montemolinisten eta gure errealisten amarru gaistua ezagutarazi ginituen astetik. Gure pensamentuak justuki gertatu dire.

Juian 28an, Manzano, brigadierak Jauch, koronelak, eta Bofil, loti-nent-koronelak, jo zuten errege-absolutuen defensor famatua, Cabrera. Afera hortan galdu zuen amabortz bat gizon. Zeinbeit egunen buruan, Manzanok berriz jotzen du eta egiten diozka askitxo prisonier, ainitz soldado hil onduan. Paredesek, azken aldi huntan arraskada aski propi bat eman dio, bortxatze-kotan, jenden erranez, berriz Frantziarat eskapatzera.



* * *

Nafarruan eta probintzian, ez dire urusago izan. Ez dute Montemolinistek nihor atxeman bere phensamendukorik; bainan bai erri, orotatikan egorri tuzte defensarik batere egin ahal gabe. Morenok, Iriartek zer egin dute, zer ethorri dire? Apenas Karlitek bandera altxatu zutenekotz, jadanik, Oñaten, mikeletek fusilatzen ziozkaten heier prisioner eginak; eta, Mondragonen, erreginaren soldaduek egin ziuztenek zortha bera izan dute. Elio joa izan da, eta ihesian emana. Borundan ere Karlisteri gauza bera gerthatu zaiote. Zubiriz eta Soloz manatua zen banda desegina izan da. Chef azkeneko orrek bere zaldia galdu zuen pelean.

Zubiri, egun autan, sartu zen Maulen, ehun eta lauretan hogoi gizonekilan, eta hantikan karrosan phartitu zen Pauerat. Bere aldetik, Lanz sartu da gure lurrian bere bandako pharte batekilan. Ilabete unen emezortzian, aduanako kapitainak, Bedianek, errezebitu du Santa Garaziako mugan, Firmin Ripalda, jenerala; Landa, koronela- Lukas Zabaleta. Mendoza. Antero eta Balen zia, lotinent koronel eta komandantak, heieki lauretan-hogoi-tahameka gizon.

Hastetik, Zaldibian fusilatu zuten, erreginaren tropek, jeneral Alzaa, Gipuzkoarra, Eskualdun fina, bere malurretan karlista. Batzuek Isabel, bertzek Karlos Montemolin; bertze gisako zuten Kantabre zaharrek bere bandera zaharrena, *Lauburua* deitzen zutena, eta arte denborako bandera berria. *Irurak-bata*, bere irur eskuekin, Eskualdunen Errepublika famatua errepresentatzen zuena. Nork oiher eginen du, azkenian, errege-erreginak eta heien partidario tontoak edo anbiziosak akazatu ondoan: Biba Independenzia! Biba Errepublika! Biba Eskual Herria?

Ariel, 1848-VII-25

VII Herritar maiteak

Ordu da ezagut eta irakur dezazien Atharratzeko kantunamentuko jaon Mera orori izkiribatu dudana letera, hilabete hunen hamahirur gerrenian.

Badakizie. Errepublikaren bost-gerren hilabetian, bataila handi baten diharamenian, ni eta Iholdiko kantunamentuko Kunseiler fidela sarthu ginela Parisen, gure herri maitiaren zuzenean baliarazteko. Erremetitu gunian Deputaten Khanberari petizione azkar bat, gure bazkagien klasamentu gaixtuaz eta lege forestier herriaren galgarriaz justo den pleinta eraikiten gunialarik borthizki.

Geroztik, Kunseilu-Jeneralian, gure lau-gerren komisionian, kargaturik izan nintzan arraport bat kestione forestieraren gainen egitez; min aspaldian inprimaturik beita, eta Kunseilu Jeneralak, gure abisez galthegein du Khanberari Koda Forestierian atsulutoki nesesarario den artikulu khabio bat.

Hau duziela kantunamentuko jaon Merer izkiribatu dudana letera:

Monsieur Le Maire,

«Vous aurez reçu l'arrêté de M. le préfet du département, en date du 29 Juin dernier.

«Cet arrêté a pour but de créer des commissions mixtes chargées de réviser les soumissions au régime forestier, conformément à la décision de M. le Ministre des finances, en date du 10 Mai dernier.

«Chaque commission cantonale est composée de deux Conseillers Généraux et de trois agents forestiers. Chaque maire ou son délégué et l'agent forestier local seront entendus dans les commissions.

«M. Dandurain, père, présidera la commission du canton de Tardets, dont je serai membre comme Conseiller cantonnai.

«Par sa lettre en date du 30 Juin, M. le Préfet avait la bonté de m'annoncer que le travail des commissions de l'arrondissement de Mauléon aurait lieu vers le 20 Août prochain. Une lettre, en date du 9 Juillet courant, que je viens de recevoir, m'apprend que l'administration départementale a cru devoir changer d'idée et que les opérations de commissions dans l'arrondissement de Mauléon commenceront le 25 de ce mois.

«La commission de Tardets sera convoquée la dernière, après celle de Saint-Etienne.



»Je n'ai pas besoin de vous le dire, Monsieur le Maire; il est de la plus haute importance pour nous tous et pour votre commune, de pouvoir désigner avec la plus grande exactitude les terrains et les bois cavalièrement placés sous le régime forestier qui ne sont réellement pas susceptibles d'aménagement ou d'une exploitation profitable, et dont la libre jouissance doit être par conséquent rendue à nos communes. La prospérité de notre état pastoral et agricole tient à cet acte de justice qui ne nous sera point refusé.

»Je vous prie, Monsieur Maire, de vouloir bien dresser, sans le moindre retard, un tableau détaillé des terrains et bois près qu'un intolérable abus forestier a ravés à votre commune depuis la promulgation de la nouvelle loi. Vous voudrez bien me faire préparer une copie de ce travail, que j'attendrai impatiemment. Nous saurons bientôt si les intentions équitables que l'on nous montre sont sincères».

Esparantxa dut, herritar maitiak, gure aldeti, orok eginen Jugula gure eginbidia. Bakia dugun kunsarba, tropa galtegiek abantailarik har eztezen gure kuntre. Dugun ezagut Khanberaren eta gobernazalen goguaeren bers. Errepublikak gazte bena nahasi hunek ezteizu arauz errefusatuko gure aitzinekuek sekulaz geroz gozatu zien justizia eta libertatia. Forestierek bere plazak eta arrandak defenda ditzela; guk gure zuzen sakratia. Kantunamentietarik phartituko diren paperek behar die suein handireki surbeilatatu, amurekati Kunsailu-Jeneralak eta herri maite hunek erreusi dezagun gure erreklamazione ezinago justuan.

Zien zerbutxari fidela,

1849

VIII Donaphaleuko populian eta republican aldeko pharthez laborarier, ofizialer, langiler eta Braseruer

Libertatia
Egalitatia
Fraternitatia

Unionia
eta
Indarra

Heldu den maiatzaren hamahirur-gerrenian izanen ziezte deituak botzen emaitera, deputatu berrien Pariseko asanblada jeneralerat egortzeko. Hori dateke urthe baten bamian, populiaren bigarren manifestazionia; eta hementik harat. Konstituzioniaren arabera hirur urthetarik behin beharko duzie arra berritu zien deputatiak; ezik orhoitu behar duzie populia dela nausi eta lege egile; populian dela nausitarzun soberanua; eztela gehiago izanen Erregerik ez eta Enperadorerik Franzian, populian dela xoilki erregetarzun guzia, elgarren artian oro berdin begira eta zozietatiaren xeduna beita irustarzun berdina, oroia eta komuna.

Denbora berri bat altxatu da, adiskideak, populiarenzat... Munduko izaitarzunak gizonen artian behar du izan arraxuxendia. Handiak *aphaldu gabe*, txipiek izan behar dute *altxatiak*. Gizonez gizon ez da gehiago ez txipirik ez handirik... Bainan oh! zer diferentzia aizetarzunian!... Batzu opulenzian, aberaxtarzunez okiturik, abondanzian eta munduko ponpa guzietan?... orguliak harturik, bihotza gogorturik, kargu handietan, errege txipi batzu bezala, oro zerbutzari, agur egile, handiz handi adiskide, txipien kontra bethi akort, otsuak aharien kontra bezala...

Eta bestealdetik, odolizerdiak, Laborariaren, Langilen, obraphenatiaz, ezin biziz; ezin egitekuer burutziaria emanez; ezin Familia guztian xuxenduz; ezin hurutzetan gauzak atxikiz?...

Lege Fondamen suerthe batzuk izan beharko dute arrahunkitiak; egin, Populiaren reboluzioneko biktoria eta Errepublikazko gobemamen-



dia duperiat eta traidoreat lizateke orai bezala gauza orok egon behar balute.

Guardi emazie partikular laboran gaixuak. Zien ekiko hontarzun guziak, erorten dira sekulako, hiritarren eta Puxanten eskuetarar. So egizie herriz herri, eta galdein ezazie, zien spirituan eta bihotzian, nuat zuazten?...

Botz batek, heiaigoraz erranen derauzue: *Leize zilorat*. Oraino hogoi urthe eta eztela izanen kanpainetan etxetiarrrik baizik!... Oro brasero, oro esklabo galerienak bezala!... O egiazko egia; malhurrezko-malhurra; laboran Etxe nausiak jeneralian desolazionian dirade, zorretan zergez iretsirik, intereser burutzarrik ezin eginez; rekoltak ezin baliatuz, etc, etc.

Erraiten dute bost ehunaren dako?... ez da bost baitan zapi, zortzi urthian, kontratuen, hipotheken notarien, kontrolaren paper markatien eta kittanxen fressez doblatzen beita bosteko interesa.

Interesaren legiak kanbiatu behar du!... edo hobeki erraiteko Republikak xahatu beharko du Laboran-Nausien hipothekak: Kreita arra berrituz bera prestazale sarthuz eta hartzedunak pagatuz, titulian kontra, emanez fresik gabe hogoi hurthe thermino, zorraren pagatzeko urthe oroz hogeigerrena pagatuz hirur ehunaieki.

Kapitalistek dute dihurua, interesarendako; eta laborariak luna, erre-koltarendako. Beraz ahal bezain bat behar lukete izan, lurrak eta diuriak prootxietan berdin. Bainan oi zer diferenzia! ... Laborariak, bere lanak, harrien, tenpesten, zergen kaziaz behexirik, ez du idokitzen, unsa kondatuz, biga edo hirur bezik bere huntarzunetik; —eta aldiz ezijeatzen du bost, fresak bestalde, ehunarendako, ez zergarik ez enposik pagatu gabe; eta oraino beste alde usurieren trafika, tronperia, laboraren izerdien, odolena, biotzen eta animen gortuz.

Reforma handi batzuk izan behar dute fite moldatuak; nonbreik handiena da phenetan; eta botzez nonbria nausi da.

Laborariak, ofizialiak, langiliak ziek ziezte lurraren semeak; ziek duzue zien izerdiez luna gizontzen; ziek ziezte hiritarren, populuaren haszale, funizaliak; ziek duzie lurraren primu bezala lurra beiratzen, lur ingrat dolorezko hori phausurik hartu gabe heriotxe artian; ziek duzie pagatzen zerga sorte guziak, diurutana eta odoletan; ziek ziezte Franziaiko indar guzia, Franziaiko arima eta bihotza; harmadetan ziezte soldatu Itxasuan marinel: eta aldiz Franzia lanjerretan denean; ziek duzue Republika salbatzen orai diela 57 urthe bezala 14 harmada formatuz etsai barbaruen erhausteko, zien zango pethan belharra epaiten duzien bezala Republicain etsai suerte guzien ihorzteko.

Ziek ziezte oro, deus etziezte. Begiak zabal zatzie, eta ikusazie.

Elekzione berri hotan, behar baduzie zien dreitsuak oro konsekreakzi... hamar dirateke Departamentuko... Orai diraden hameketan, hirur edo lau dirade populiaren alde berriz nomatzeko hun. Intriga eta inportunitate ainhitz izanen da, handien phartez, aitaizun undo; aberats eta aisebizi diren phartez. Mesfida ziezte, arropa beltz luzer; Jaun errient batzur... horiek indikatuko duzten suietak populiaren hunik deus ez dute eginen, ezik Philipistar, Carlostar, eta Royalista usteldu horiekin ukanen duzie, faltaik gabe lehenoko deitxemak, grabelak, fiusak, eta populien iresteko ifernuko dretxo guziak. Gida ziezte orien otoi hiri handietako populian hautier.

Igan urtheko elekzionen espereniaz populiak harthu behar du letzione. Tronpaturik izan da populia bere esperanzetan... urthe bat galdurik promesa falsuetan...

Guardi emazie: Etsaiak jinen dirade borthara joiterat, adiskidezko maskerekin; ezta espainetan, ozpina bihotzian.

Oi, Laborariak, Langiliak, Maisturiak, Harginak, Oskiegiliak, Ehuliak, Arotzak, ofiziale guziak.

Nahi baduzie Gizonai dretxoz prootxatu; nahi baduzie: 1. Gatzen inposa hautsia izan den; 2. Harmadak izan ditzen xipitiak; 3. Soldado zerbutzia hirur urthez konpliturik; 4. Kapitalen interesa hirur ehuneat xipiturik; 5. Gobernamiendiaren zorren interesa, berdin hiruetarat ezarririk; 6. Rekoltak eta etxiak asuraturik Republikaz, harrien eta suien kontra; aberen eritarzunezko mortalitatan eta malhur guzien kontra, frais eta despendio gutiz; 7. Nahi baduzie heldu, Turren eta huntarzunen likidazioneat, hipothekak eta zor guziak garbituz, bakian, aisian lo egiteko; 8. Ezpalin baduzie hogei urthe gabe nahi ikusi, mundu guzian miletarik bat salbu, oro brasero, oro esklabo.

Emanen duzie botxa, St-Gaudens, Chaho eta Renaud bezalako gizoner.

Indar legal guziez nausi ziezte: Junta giten oro Republikaren salbatzeko eta mende rejenerazionetan libroki sartzeko.

Gure aldetik bethi egonen girade sentinel bijilant gisa, zien behar ordutan abertitzeko; gizon falsuen ezautazteko:

Vive la republique!

Président: Dupouy; Vice-Présidents: Sallaberry avoué et Feraud docteur médecin;



Assesseurs: Lohiol maître d'hôtel, Larregieu huissier, Bartabure propriétaire; Coye propriétaire, Cledon médecin vétérinaire;

Secrétaire: Berdoly, entrepreneur des travaux publics.

Ariel, 1849-IV-5

IX

Nekazale baten kontseilua

Lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer

Nere estatuak hanitz permetitzen ez luken arren, okupatu izan naiz populu xehearen estatuaren iztudiatzeaz, izan nahiz gero ondoan gai kontseilu on zombaiten emateko, eta partikulariki kanpainetako populazionea kausitzen den leze eta ilhunbe hortarik atheratzeko argien emateko. Uste izan dut orai mementoa ethorria dela.

Badire bi gobernamentu suerte: bat, aberatsak xoilki faboritzen dituen, bertzea berriz pobreak eta aberatsak bardin begiratzen dituen.

Gan den urtheraino aberatsek egin izan dituzte legeak, ordutik hunat populu soberano edo nausi ezarri baitu Errepublikak edo guzien bozak kondatzeak, populu guzia da deitua legeak ezartzerat, berak hautatzen dituen gizon batzuen medioz, zoinak deitzen baitire deputatuak.

Maiatzen hamahirurean behar ditugu izendatu hamar deputatu gure departimendukotzat. Hameka egorri ginituen ganden urthean; ez dute gauza handirik egin populu xehearen alde; xoilki konserbatu dauzute gutarik bakoitzaren botza, ala aberats, ala pobre, higuak kondatzeko dretxua; gainerakoan, gure alde proposatu diren legeten, hameketarik zortzi edo bederatzi kontra izan dire.

Errepublikaren izena ikusten dugu beraz oraino, bainan hitz horrek eran nahi duenetik eta promes ematen duenetik deus ez dugu oraino ikusten Hori da plat urrezko eder bat deusik jateko barnean ez duena. Guri zaiku plat hori janari onez bethetzea, egorriz deputatutzat populu xehearen alde lege guziak ereberrituko dituzten gizonak.

Bainan oroit ungi ez dituzuela aberatsetan atzemanen hortako gizonak, ez hekien partetik uste izan ethorriko dela gure ona.

Erranen dautzue bai nausiek edo burjesek aberatsetan behar dituzuela hautatu, ontasunen konserbatzeko: bainan emazue ungi gardia gehienak kapitalistak edo dirudunak direla, eta ez dutela diruen faboretan diren legeak mudatuko. Zer abantail ethor litzaioke, emagun Ipotekaren legea erreberriturik? Sobera da heientzat ona ipoteka, leze ikharagari hori zoinetan hainitzak baitire sartzen, guthiak atheratzen. Eta nola daiteke bertzela? Aparte uzten dugularik kontrolako, paper markatuko eta notarioko gastuak, behar du etxeko jaun ipotekan sartu batek ehuneko bortz hartzedunari pagatu, eta antzinat gobernamentuari legarak edo kontribu-



zioaneak; eta gastu eta despendio horiek guzientzat, bere ontasun malurusak ez dio, nahi bezin bat izerdi eta nekheen ondoan, ehuneko bia eta erdi edo gorena hirur baino gehiago emanen. Segur da beraz kapitalista orai-ko legekin laster beretzia ipotekaren aztaparretan sartua den ontasuna. Bai, nahi dute handiek ontasunak konserbatzea, bainan bereak, eta bethi emendatuz.

Eta ez uste izan xoilki ipoteka dela heien faboretan; aberats gehienak intresatuak dire gauzak orai diren estatuan gelditzea.

Ez dute nahi legarrak edo kontribuzioeak guthitzea, zeren, ezagutua den bezala jende xeheak, araberan, hainitz gehiago pagatzen baitu, eta kanbiamendu bat egitearekin, hekiek ere izanaren arabera behar bailukete pagatu.

Ez dute nahi haurrei eskola gobernamentuak ur irik eman dezan ez eta pobreaken haurra eskolatua izan dadin aberatsena bezin ungi, zeren pretenitzen baitute nekazaleak ez duela sobera artigua izan behar. Zertako? Berek nahi duten bezala aferak egiteko, azken elektionetan gisa, zeinetan, hirriz zaudelarik, nahi zituzten gizonak baitzaituzte sakatu; bertze aldetik, ez baitute nahi urguiluz eta abarizius horiek pobreaken semea bere semeen pare egin dadin, zeren pobren haurra eskola gabe gelditzearekin gobernamentuko eta administrazionetako plaza handizki pagatu guziak familia beretan baitire gelditzen, gure eskutan phala eta haintzurra bezala.

Beraz, horiek guziak, eta hogoietan bat ez dut erran, ungi gogoan erabilirik, erna zaizte, eta oroit zuen zortea zuen ethorkizuna bozaren ungi ematei heldu dela. Zuen eskuetan duzue bothere guzia, elkarri juntatzen balin bazarete: Franziako populazionearen zazpitarik sei nekazalea da, zazpigarren bat baizik ez da beraz buriez aberatsa. Baina abilak dire, amarruz eta zizana txarrez betheak, ez gezur, ez kalumnia, ez mehatsu falso, deus ez zaiote ipokrit zahar horieri gostako zuen tronpatziagatik, sobra dire ungi ikhasiak Filipe azeri zahar kasatu dugun harekin.

Presentatuko dauzkitzue zuen nausiek, hartzedunek, adixkhidek eta men baitan zerbait autoritate dutenek lizta suerte hanitz; guzieri har izkhitzue, bainan konsulta zaizte nekhasale argituekhin, zoin den hoberena jakiteko, eta ez ergel, bere intresa, bere ona ere konprenitzen ez duten batzuekin, zeinak, aberats batzuei atsegin egiteagatik, uzten baitute beren buruak erabiltzerat heiek nahi duten bezala.

Lizta hainitz hartuagatik, nihork ez dugu jakin behar zein ematen duzuen kaxan; ez zazuela uste izan asenbladako edo bilkuiako buruzagiak bileta eskuz miratuagatik izenen irakurtzeko dretxua baduela; bakharririk

miratu behar du eia bat baino gehiago ematen den, baldin frogatzen bali-zaio biletak irakurtzen dituela gohorki legeaz punitua liteke.

Baxenabarreko, Xuberoako, Baionako eta Bearnoko nekazale guzieri ekhartzen dituzte bere liztetan Michel Renaud Donibane Garazikoa, Augustin Chaho Atarrazkoa, Saint-Gaudens Orteskoa, eta Saint-Guilhem Tarnoskoa, zeren horiek baitire populu xehearen ona egin behar duten gizonak.

Esperanza dut Lapurdik ere horien exenplua segituko duela. Bainan diote hainitzek, eta partikulariki zenbeit emazteki ximplek, ez ginduke egorri nahi Parisko asenbladarat gizon erlijione gabarik, eta zure konseilua segituz, bildur gintazke malhur hortan erortzea.

Tronpatzen zaizte, nik errekomendatzen ditudan gizonak ez dute erlijionea falta bainan heien erlijionea da zuena baino argituagoa, ezen erlijionea, bertze gauzetan gisa, abusu franko bada. Hortaz kanpo, zertarat egortzen ditugu hautuko gizon horiek? Garizumaren predikatzerat, othe! Ez, nekazaleak; egortzen ditugu lege populu xeheaz intresatzen direnen egiterat, sekulako miseriarat ez gaiten izan kondenatuak.

Eri zaiztenean gaizki, eta proposatzen dautzutenean Miriku baten ekartzea, galdetzen duzu eta miriku harrek erlijionerik baduen? Ez, zuen galdea da, eta arrazoin duzue, eia Miriku hura jakina den, eia eginen tuen bere egin ahal guziak zuen eritasunetik altxatzeko.

Arrazoin beraz kasu huntan xoilki okupatu behar zaizte zuen deputatuen jakintasunaz eta borondateaz, bertze kestione guziak utzirik bazterrerat.

Ariel, 1849-IV-20



X Herritar maitiak

Gizunak behar du jakin bere eginbidia. Ezpadaki, galthatzez ikhasi behar du.

Ikhasi ondun ahal bezain untsa behar du egin korajeki eta kuntzentziareki egin-bide hura.

Frantzes gizun orok behar die nurk bere botak eman, herriko erre-presentanten izentatzeko. Hau da gizunaren egin-biderik noblena eta sakratiena, zeren eta bot hoietarik dependituko beita herriren untsa edo gaizki izatia.

Botzaren untsa emaiteko phena hartu nahi ez tinak, eztu merexi gizun deithurik izatia ez eta Frantzes ere; eta gutiago *Uskaldun Ziberutarra*.

Baita, bota ahal bezain untsa emaiten dinak, egiazki merexi du gizun galantaren izena eta ez da hura Franziako lehena beno aphilago.

Arren, nuri behar diren eman botzak, jakin ezazie.

Memento huntan Franziako gizonen botzak partajatuko dira opinionone hoietara; jakin:

- Bonapartistetara;
- Filipistara;
- Henrikinkistetara; (hau da Karlista) eta Errepublikanuetara.
- Nahi duzieia jale ala langile haboro?
- Auher eta gormant ala pherestu?
- Gastazale, despendiazale ala geinhazale?
- Bekhaiztu ala emaile?
- Lozer ala erle?

Bonapartistak, filipistak, eta karlistak aski beitura herrian, sobera untsa ezagutik dira. Bai batak, bai bestik, zuin hobe jale, zuin auher eta gormant, despendiazale, bekhaistu, egiazko lozerrak dira; ziek egin duzien eztiaren jaliak, azkenekoz, ezteizielarik zier uzten bizitzeko ahal bezain guti baizik.

Etzitiela horier batere fida, nahi ezpalin baziradeie phenarik handienetan bethi egon. Horiek, haboruenek trunpatzen zutie, eta bestiak berak trunpatzen dira.

Hirur gizatako lozer horietarik bat bera ezpeita aski azkar erlen genhaizteko, algarreki juntatu dira, bonapartistak, filipistak eta karlistak, eta egin hala eginen die populu xehiren zankhapetan ezarteko.

Nahi dien bezala, partidu horiek, egin dutukienian elektzione berri horik, laster beren artian aharratuko dira. Memento huntan ez tira okupatzen etsai handienaz baizik, erran nahi beita populu xehiaz.

Soizie zuinen falsiak diren.

Erranen deizie ordre hunaren amurekatik hirurak alkharregi enthelegatzen direla, nahi bada untsa badakien ordre hunak eztila hurak berak baizik etsaik, zeren eta haien inbeia handiena beita errepublikenen eroraztia, lehen bezala ostikataz populiaren erabilteko. Gero zer izanen da goberen artin? Populiren khostuz populiren gizon gaztiak biltzen dutielarik gerlan ariko dira beren artian.

Partidu hoien oraiko hitza da *Hirurak-bat*, bena bakoitxaren phensamentia da «Oro gure, oro gure etxerako».

Bai ene langile maitiak, jaun hoiek trunpatu nahi gutie lehen bezala eta bai hobekiago ere.

Ikhus ezazie:

Nurk legarrak goratu eta gora etxeke nahi tu? Nurk kentutu tin gure lege zahar hunak?

Nurk lege berri gaiztuk eman deizkute? Nurk etzin nahi utzi gatza merketzera?

Nurk mendi eta oihan legik diren bezala utzi nahi tu uskalherriren galtziaren urhentzeko?

Nurk hitzamanen du ororen hun dena eginen dila hitzaren jateko, eta bere familiaz baizik ez kasurik egiteko?

Nurk batin karesatzen, bestin mehatxatzen zutie zien botzen ukeiteko?

Nurk gezurrez eta kalomniaz populiren adixkiderik hobenak zien eretzin galdu nahi lutukie?

Nurk maradikatu gazeta bat (*Memoriala*) phakatzen eta irakurrerazten du, gizonen trunpatzeko, eta erraiten Ariela eta hanitz beste gazeta, gaizto direla?

Nurk nahi lekeizie idoki botatzeko photeria, sufraje unibersela?

Nurk egin liru hainbeste kokineria, populu xehiren txipitzeko igaran denboretan bezala?

Nuren kausaz arduaren dretxuak ez tira orano kenturik? ez tabakarenak ere?

Bonapartisten



Filipisten;
 Eta Karlisten
 Aldiz, nur dira populu xehiren egiazko adiskidik? Errepublikanuak!
 Mundu orok badaki hori.
 Errepublikanuek populia maite beitie, populuko gizunetarik
 beitera; nahi beitie libertatia, bardintarzuna eta aurrhidetarzuna
 mundu orotan izan ladin; nahi beituakie legarrak hanitzez aphaalago.
 Oihanen eta mendien legien khanbiamientia. Haurren ororen untsa
 eskolatzia.
 Lana ahal bezain beste eginen unduan, behar bezala hazirik izatia.
 Langilia, bai jornaletora, bai laboraria hobekiturik.
 Lurretan gainen diharu jesailik, hipoteka lege gaizto horitarik libra-
 turik.
 Azkenekoz, ororen zuzenak, eta untsa izatia segurtaturik.
 Eta haur maitiak, konseilu hoiek jarraikitzen batuzie, bai ziek, bai
 zien haur txipiek, denbora gutitan barnen untxago izanen ziradie.

Ariel, 1849-IV-29

XI Jaunak!

Jaunak,
 Lehenbiziko ene inbidia da zien erremestiatzia egun in dautazien
 ohoriaz banket hunen presidatzeko. Errezebi zazie arren ene grazia
 guziak; eta nola bihotzez mintzo direnek eta bihotzez intzuten dutenek,
 aisa konprenditzen baitute elgar, finitzen dut artikulu hau, segurtatzen
 ziuztetalarik khausituko nuziela bethi, hil artio, populu xehiaren xerbitxa-
 ri pherestu.

Jaunak,... orok badakizue zer solaniteren, zer seindimendiekin
 bildu giren lekhu huntara: Morde Renauri gure eskerren emaiteko horrek
 atxiki dien konduitzaz guk Pariserat igorritz geroz. Konduita hori ere untsa
 da zagutia gutaz orotaz, bai eta ere gure herrietako jende xehe guziez, eta
 hartakots ere intsuten dugu bazter guztietarik:

Biba morde Renaud!!!

Horrek erran nahi du populia huna dela, eztela ahazkor; erregiek eta
 aitoren semek emaiten ahal duztela diharu eta plaza haundiak, bainan ez
 amodiorik populiak bezala.

Ontsia abiatu zirenaz geroztik, morde Renaud, hola hola, segi zazu;
 atxiki zazu bethi populiaren amodiua bihotzian; defendia errepublika
 etsai guzien kontra; bortxa gobernamentua zerga eta phetxa guzien thi-
 pitzera, eta horien inahalaz aurthikitza aisenik pagatzen ahal tuztenen
 gainera; kargulari soberakinen khentzera; haur ororen eskolatzeko moie-
 nen hartzera; zahar ezin beste eta pobren sostengatzera; laborarien eta
 beste jende ttipien dako banka batzien formatzera, nun han hatzemanen
 baitute bere bebar ordietan diharu intres ttipi batian; hitz batez, so egizu
 populiari, horren xortha tristiari; egin gero, orai artio bezala, zure bihotz
 hunak erranen dautzunak; eta gu ere, gure aldetik, ohituko gira igaran
 egunetan bezala zutaz, eta erranen bethi orok, ala Pariserat igortzeko, ala
 Parisetik jin onduan: Biba morde Renaud!!! Biba Errepublikak!!!

Ariel, 1849-IX-29



XII Herritar ezinago maitiak

Orai diala berrehun urthe aphez bertsolari eta koplari famatu batek, Etxeberri deitzen, ezarri zutian bertsoz eta aski untsa arrimaturik Naturazko legiaren bi maniak.

Eztiozokela egin
Lagunari kalterik,
Hiri egin liezaken Nahi
ez ukeenik.

Aizitik, bethi ontasun
Egiokek ahala,
Hin egin liezaken
Nahi uken bezala.

Ziberutar maitiak, laphurtarra nik bezain untsa konprenitzen duzie. Fida niz Baxenabartarrek ere gure Basaburuko uskara-hau perfetzionian kunprenituko diela. Khant'itzazie laphurtarrez Naturazko legiaren bi maniak, errefletzione egiten duzielarik Naturazko legia dela Errepublikaren lege sakratia eta prinzipala.

Orok lege saintu hau behar gunuke kunplitu. Aurthen orano Elektur girenek badutugu lagunak eta aurrhidiak Departamentian, nur-nahi bezain gizon unest eta galantak, bi urthez Elektur izanak, aurthen Elektur ezitrenak; Elekturgua eta botz-emaiteko zuzena gure deputatu joanek galerazi beitie Baxa-Pireneetan hogeita-hamabi mila, sei ehun eta hamazazpi gizoni: Frantzian aldiz hirur miliu, berrehun eta hogeita bost milan. — Aurhidiari hunki egiok, hin aurrhidiak egin dezan hik nahi hukian bezala.

Hilabete hunen hogeita-sei gerreneko igante egunian bi Kunsailer-Jeneralen elejtzera edo izentatzera. Atharratzeko eta Iholdiko kantunamentietan, Jaon Prefetak deitzen zutie, oro Elektur bagina bezala, Herritar ezinago-maitiak!

Arragret handireki erran behar deiziet zerk kausatu dien Elekzione hoién desagradamentia: zer arrazuz edo motiboz Chaho Basaburutarrek eta Dindaburu Baxenabartarrak Errepublikano legez eman dugun gure demisionia; eta zertako jalkhi giren gure boronthatez eta egindidez

Departamentuko Kunsailu-jeneral arraro bat, egia bad'ere; berrogeietarik hogeita hamarrak erregetiar edo rojalist ezpalira! Ah! Kunsailu-Jeneral admiragarria!

Ingoiti belharikatu zaizie, zien botzak galthegeinez, kandidat berri franko! Nur othe dira? Gobemamentu saintu hunen zerbutxari erder-elibat! Jaon-aberats, urgulu-jankin anbizius zunbait, menturaz! Bena populiaren adixkide fidelik bater'ez, Errepubliken egiazkorik ez bihi bat! Ohart etxekazie nik erranik egia hau, Herritar ezinago-maitiak. Uskal-herrian bada erran zahar bat; Egiazko gizonak zuzen justua behar dila sustengi edo hil. Gure hil-orena Zelian izkiribaturik denaz geroz, Jinkuak badaki noiz eta nula hil beharko dugun. Arte huntan behar deiziet erran zer bilhatu-den Frantzian hirur miliu berrehun-eta-hogeita-bost mila gizonen Elektur zuzena! Igaran urthian, maiazaren hogeita-hameka-gerren egunian, lege berri baten medioz, gure Pariseko deputatu Jaonek egin ukhen die mirakulu izigarri hori. O Deputatu paregabiak!

Hau dugula misterio terrible bat! Behar deiziet untsa esplikatu, amurkatik eta zihauriek jakin segurrez eta gogo zohardiz ikhus dezazien eia zer kunbeni den aldi huntan, Atharratzeko eta Iholdiko elekzione hoietara juaitia bai al'ez, botzen emaitia bai al'ez. Emazie atenzione, Herritar ezinago-maitiak, Frantzia eta Departamentia zier so daudela. Frantzia orok dakien egia handi bat klarki deklaratu nahi-deiziet.

Elekzione hoietara presentatzen balin badira gure bi Kantunamentu liliak, plazer handi eginen dozie gure Jaon-Prefetari: dudarik ez tut kuntent eta alagera ezariko duziela. Arrandaz bizi diren Jaonek kunplimentu eginen deizie. Gobernamentiarren eskuti, guk phakatur, bere soldata errezebitzen dien kargulantez orok laidatuko zutie. Ah! zer profieitu ederra, zer uhure xarmanta dukezien, daigun urth'arte huntan; eta beste abantailarik bater'ez, Herritar ezinago-maitiak!

Nurbaiti plazer eginen duzie Herritar gaxuak, eta jente hanitx phena eta afruntu. Orai-danik khuntia egin ahal diokegu, nur eta zunbat izanen diren phena-harzaliak. Ez othoi ahatz xifre hau, eta nuren izenian zier mintzo nizan, Basaburutar eta Baxenabartar maitiak!

Elekzione hoietara juanez, aurthengo Elektur berhexietarik pharte handi bat, erdia segurki, zien kuntre izanen dira bihotzez eta opinionez: Hirur miliu, hirur-ehun eta berrogeita-hamabost mila gizon: gure armada fidelaren nunbre ederra!

Lege berriari obedituz, ukhatzen eta errefusatzen duzie Jinkuak eta Errepublikaren eman zuzena, Eeekturgua, Errepublikaren lehen bi urthetan Elektur izan direner eta orai elektur ezitirener orori: Hirur miliu,



berrehun eta hogeietabost mila gizoni: gure erreserbuko armada fidel eta maitiari! Ah! lege berri tristia! Egin deikuzu Errepublikak baliu bat! Zer libertate perfeita!

Zer lege bardina! Zer egalitate eta aurhidegua admiragarria!

Eztut erranen gure Pariseko deputatiak Frantziak eta Errepublikak trufatu nahi izan direla. Bena zer diozie, Herritar leialak, lege-herriaren berthute espantagarriaz? —Mundu orok botzak emanez, bederatzu miliu, bederatzu ehun eta hogeietabost mila Elektur botz emaitera deiturik izanez, gure deputatu Jaonak izentaturik izan dira. Berrogeietabederatzian. Orhit duzie. Eta botzak galthegin unduan, botzak ukhen unduan deputatu izateko eta khanberan sartzeko lege-egile, hau duziela gure deputatu Jaonek bileizten deikiela bere elekturguati, bere zuzen naturaleti, bederatzu miliu Elekturren artian *Hirur miliu!* Eta nun da ordian Errepublikaren indarra, Populiaren erregetarazuna? Lege berri hori irakur eta uduritzen zait obeditu behar zukianak bere man hazalia, edo zerbutxarri phakatiak bere buruzagi photeretsia, hobeki erraitera mithil atrebit batek bere nausia etxetik kanpo, ez borthati bena bai leihoti, aurthikitzen diala. Trunpatzen othe niz? Nahi nuke jakin zien abisa, Herritar ezinago maitiak.

Zunbait jentek esparantxa die Elektur izaner bere zuzena errendaturik izanen zaiela. Nik eztut sinhesten. Beste zunbaitek erraiten die zuzen hori ezpadeikie Jaon deputatiek errendatzen, gihau ere arrahartzeko kapable ginatiala. Bena phuntu horrez gitian mintza ahapeti. Kestione bat phausaturik izanen da Frantzia orotan, hilabete-zunbait gora-behera, President berri baten eta Khanbera berri baten izentatzeko orena jiten-denian. Ordian eginen dugu, ikhusiz, gure egin-bidia.

Eta eni eztizadala ihurk ere erran Elektur-ohi maite hoiek merexitu ziela bere zuzenaren galtzia! Berrogeietabost zortzian, Errepublikaren establitziareki, Elektur listati kuriuski apartaturik izan-ziren, eta geroko urthian ber gisan, justiziaz kundenatiak eta uhuin aprobatiak: hamahirur-ehun mila sujet heno haboro. Majoritate-adina, sei hilabete domizilio eta bizitze unest bat, erraiteko eta erreprotxurik gabe bat: horik ziradian Elektur izateko kundizione garbiak. Bena geroztik lege berriak galthegiten du hirur urtheren domiziliua eta hirur urtheren legar persunela. Muien horrez, bederatzu miliu, bederatzu ehun eta hogeietabost mila Elektur beitzen Frantzian, egun eztugu sei miliu, zazpi ehun eta hameka mila Elektur baizi.

Gure departamentian, azken elektionetan, ehun eta hamazazpi mila, bederatzu ehun eta hogeietabost mila Elektur beiginen, egun ezkira lau-

retan-hogei-eta-hamabost mila, hirur ehun eta hamalau Elektur baizi. Paueko arondisamentiak galdu duke zazpi mila bost ehun eta sei Elektur: Orthezekuak bost mila sei ehun eta hemeretzu: Olorukuak sei mila berrehun eta hogeietabost zortzi: Baiunekuak sei mila zortzi ehun eta bost: Maulekuak aldiz sei mila laur ehun eta berrogeietabederatzu.

Dugun orai esplika bi hitzez zertako nik eta Dindaburuk eman-dugun Kunseiler Jeneral bezala gure demisionia, Herritar ezinago-maitiak.

Legiak ekhartzen du hirur urthetarik hirur urthetara Kunseilujeneralaren hirur-gerren phartiak edo herenak arra-berriturik edo khanbiaturik izan behar dila eleksione berri eginez; hori erran nahi beita gure departamentuko hamahirur edo hamalau Kantunamentutan populiak botzak emanez.

Listak egin-eta, Jaon Prefetak xorthiala thirutzen-du hiruretarik bata. Igaran-urthiak preparatu guntian Kunseilu jeneral hortan hirur lista; eta lista hoien egiletarik bat ni nintzan, Herritar-ezinago maitiak. Bena nula Gobernamentiak eta Khanberak ezpeitie nahi ukhen Eleksione berririk orano errixkatu, Frantziako bi mila zortzi ehun eta berrogeietabost zortzi Kunseiler jeneralen herenaren berritzeko edo arra-izendatzeko, jakinen duzie gure Deputatiek, lege batez, kunseilu jeneral ooren photeriak kuntuatu eta luzatu dutiela.

Hartakoz nik eta Dindaburuk igorri dugu Jaon Prefetari gure demisionia, hirur urthiak fini-eta, eleksione urthe buruan, egunez-egun; Errepublikano bati ezpetzaio kunbeni Populu-erregiak eta Sufraje uniberselak eman zeion indar bat eta photere bat Deputatu Jaon hoien esku-ti errezebitzia eta begiratzia.

Luzatze hori, herreztatze hori deitzen die gure Jaonek, bere Frantzez gaixtuan, *Prorogatzia*, eta eleksione berririk egin nahi gabez prorogaturik izan dira. Kunseilu jeneralak bezala, hogeietabost mila, zortzi ehun eta hemeretzu kunseilu munizipal. Eta egiatzki, daigun urthiari buruz Jaon deputatu hoiek fantasi bat har baleze, legia buhurtuz eta thermainiak, zankhapetan ezariz, bere photeren edo Bonaparteren presidentguaren luzatzeko, Herritar ezinago-maitiak, eztut ikhusten gure herriko errepublikan bastart zunbaitek zer arrapostu lukien emaiteko.

Ez Chaho ez Dindaburu eztira kandidat presentatzen, Atharratzeko eta Iholdiko Kunseiler jeneral izan beharrez. Berrogeietabost zortzi botzemaile maitietarik heren bat bere lagunetarik eta aurhidetarik separatukhen du lege berriak. Soldado izateko, Errepublikaren defendatzeko, Frantziari zor lukie bere odola eta bizia. Eta zependent, ezkie botz baten



emaiteko permisionerik! Herritar-lagunak gabe juanen othe dira botz emaitera aurthengo Elektur bereziak? Ez arauz? Ez segurki!

Bederatzu departamentutan, hanixko herri eta hiri handitan Frantzesek egin dien eta aurthen ikhusi dugun bezala, egonen ziradie zien-etxetan, Elektur ezinago-maitiak. Ugurukiko dutuzie President berriaren eta khanbera berriaren elekzione jeneralak: huilantzen ari beiti-ra, ihurk uste heno huilanago beiti-menturaz.

Bi mila urthe huntan Uskaldun nubliak eztu ihureganik libertate etsenplurik hartu, bena-bai eman Uropako nazione orori. Konprenitzen duzie eginbidia. Eztuzie ene aholkiaren beharrik, Herritar fidelak!

Errepublikaren izatiak, Populiaren erregetarzunak badu sekulaz geroz bere potreta: zuhain gora-bat, haritx eder bat. Eta haritx hunek badu hirur adar gehien, Libertatia edo zuzen justua, Lege bardina, Fraternitate irus-bat. Elekzionetako lege berria pratikatzen balin baduzie, Herritar ezinago-maitiak, erdiz-erdi segatzen deitadazie gure arbole ederra! Guardia emazie eihar eztadin, eta Errepublikaren etsai-beltzak su eman eztizon!

Ariel, 1849-X-16

XIII

Herritar ezinago-maitiak!

Hilabete hunen hogei-eta-bederatzian, Baionako eta Mauleko bi arrondisamentietan, berrogei-bat-mila Elekturrek behar duzie izentatu deputatu berri bat, Konstituzione berriari obeditzeko. Napoleonek egin deizie lege berri hau; eman beitzenozien, Frantziako Populiak, zazpi miliu eta bost ehun mila botzez, harek borthizki galtheigin zian indarra eta photeria. Zihauriok badakizie duda gabe, nik beno hobeki, zuinen irus eta kument izan behar dugun gure oraiko zorthen berriaren medioz.

Kestione hau utzirik saihsialat behar deiziet deklaratu ene deseina eta phensamentia: nula, sekula beno kunfidanxa handiagoreki, elekzione huntara agertzen nizan, Uskaldun legez, Uskaldun fidel bat bezala. Aldi huntan ezta hamar ez hameka errepresentanten izentatzerik. Hirur deputatu baizik eztuke Baxapirenetako departamentiak. Baxenabarrek, Ziberuak eta Laphurdik, hori erran nahi beita Uskal-herriak eta Uskaldunek orok, eztukie deputatu bat baizik. Departamentiak hirur; Uskalherriak bat. Denak aski; hun balira!

Herritar ezinago-maitiak! Digno eta kapable etxeikitzen banaizie zien errerepresentatzeko Pariseko Senbladetan, aski dukezie zien botzen eni emaitia. Behar-bada, hola prekozionatuz, untsa beno hobeki eginen duzie. Nik uste dut, eta Paristar zunbaitek ere erraiten die, etzaiziela aldi huntan dolutuko; halako beiti- denborak!

Sei urtheren eginik izanen da oraiko izentazione hau. Senblada-berri horrek urthehal ukhenen dian sesione edo bilkhura ordenarioak eztu iragan hirur hilabete beno haboro. Denbora horren burian, Pariserik utzul unduan, izkiriba neikezie uskaraz zer lege berri egin othe dukie zien deputatu berri hoiek. Gazterik juan nintzan Pariserat, Herritar ezinago-maitiak! Paseiatu niz hanitx urthez hin handi, mirakuilutsu, pare gabe hartan. Han dira orano, Uskal-herrian bezala, ene adixkiderik hobenak. Herritar ezinago-maitiak! Gogatzen zutiet igor nezazien preferantzaz Pariseko Senblada berri hortara. Ihurk-erek ezteizie emanen nik beno hobeki hango berri.

Aldi huntan ezteie ukhenen deputatu berriek phakamenturik. Erraiten du Biarnes prudentak, aberatsak sarthurik ere duhainik deputatu edo errerepresentant, khario khosteko direla azkenekoz populu gaxuari. Hori erran nahi da aberatsek eta handiek eztiela sekula neglijatuko abera-



tsen eta handien intresa, urguilia eta abantaila. Orain artino eginik izan diren legek orok, Frantziako populu tristiak phakatzen dutian legarreke orok, phetxa eta kontribuzione guziek maleruski erakasten deikie egia hau ekhia bezain klar. Nik ere aldi batez izkiribatu nian Biarneser bere lengajian ber gaiza: handiek bere abantaila berhexia eztiela sekula utziko txipien eta populiaren amurekati; nun ezten gizonaren naturel gaixtua eta anbizionia khandiatzen. Eztakigu Jinko jaonak eta Napoleonek eginen othe dienez holako mirakuilurik. Arte huntan, nik, elektur banintz eta laboran, prefera niroke deputatu aberats puxant bati, ni bezala bere ofizioti bizi den gizon galant zunbait; atenzione emanez zer eta nulako den gizon haren lana eta ofiziuua.

Herritar ezinago-maitiak! Ziek bezala mundu orok badakizie nizala egia maitale bat. Hautzarotik aitzina igaran hogoi-eta-bost urthetan ene lana ofiziuua izan da, egia hoienez txerkhatzea, erratea, izkiribatzea eta inprimaeztea, herriak jakin dezan eta ezagut ditzan egun egiten dudana bezala. Errege Filiperen aitzinian enintzan ixiltu ez ikharatu, nahi bada haren aldekuak akusatu nutian heriotze eta krimo izigarri batez. Lege egile bat behar duzie izentatu hilabete hunen hogei-eta-bederatzian. Herritar ezinago-maitiak! Lege perfeitaren segretia nik ezpadakit, enta izanen untsa estudiatu faltaz. Arrantier batek bere urhe zilharren khuntia etxekiten dian bezala; negoziante batek bere komerziua surbeilatzen dian bezala; jeneral batek gerla praktikaten dian bezala; nik estudiatu ukhen dutut populu oren hatsarriak, istoria igaranak, erreboluzioniak, lege zaharrak eta legen berritziak: hori beita ene graduko gizonen enplegia, egin-bidia, lana eta ofiziuua. Ene ofizioko gizonak dira nazione oren eskolazaliak eta politikako errejentak. Gure lumati, bere uthur buruti bezala, kurritzen da nazione oren, errege eta enperadore oren fama huna edo gaixtua. Guria beno estatu nubliagorik eztut uste badela.

Baionako eta Mauleko bi arrondissementietan eginik izanen da orainko elekzionia. Haitatuko duzien gizona izanen da partikulari Frantziako hirur uskal-herrien deputatia. Ni bazterrialat utzirik ere, emazie othoi atenzione, Herritar ezinago-maitiak, deputatu horrek izan behar lukiaka Uskaldunaren beritable potreta, eta ez gizon ezpiritu-gabe, jakitate-gabe, eskola-handi-gabe zunbait. Abertitzen zutiet aldi-huntan gisa oroz begizaturik izanen dela Uskaldunen deputatia. Aldi huntan izanen dira zien juje, elekzionen errespetura, Frantzesak eta Paristarrak; Ezta ene espiritia nik nahi nukian bezala kobardi; ene jakitatia eta eskola politikua txipi da, nahi bada hogei eta bost urthez iseiatu nizan ene argi mendriaren hedatzer. Ni haitatzen banaizie Frantzesek kunprenituko die eta hartuko die

behar den gaintialat eni akorda dio kezien preferantza hori. Gizon eskoladun eta argiturik den hem orotan laidaturik izanen dela esparantxa dut eni eman zinirikien kunfidantza marka hori. Gaiza jakina da, eta hanitx lekhan, zunbat maite ukhen dudana gure Uskalherri paregabia. Nik librietan ezariz geroz, aithor die sabantenek, Uropako Akademia orotan, hanitx phuntuz erdararen hitzkuntza nahasi hoienez ororen nauti dela gure Uskara zahar eta ederra. Ezari deiet Frantzeser inprimaturik ber gisan, gure nazioniaren istoria admiragarria. Esplikatu deitzet Uskaldun zaharren lege paregabiak eta libertate perfeitak. Bi mila urthe huntan Uskaldunak dira, Frantziaren eta Espainiaren artian, zazpi probintzia, zortzi ehun mila arimatako herri txipi bat: Uskaldun izena, bere legiak eta libertate ederra kunterbi beituie bi mila urthez, arma bardinez. Frantziako eta Espainako nazione krudelen oren kuntre. Gerlari famatu elibat izan beira: Bere nunbre txipian sekula bentziturik izan ezten armada bat: Obraz, bihotzez eta korajez populu handi bat. Nur erran du Frantziari nik bezain usu eta nik heno gorakiago? Nik eman letzionia traduzitu du Espainul gaizuer Espainako istoriadore famatu batek. Madrillerik Alemanietara artino hanitxek irakurri die eta gasetek erran die nik zunbat maite dudana gure Uskal-herri lilia. Arren, Herritar ezinagofidelak egizie afer horren gainen errepletzione bat: gure herria untsa ezagutzen dudanez bai edo ez? Ala ez othe nakike Pansera hel eta zien sofrentz eta doloren behar bezala deklaraten? Egizie iseiu bat.

Erradaziet egia. Herritar ezinago-maitiak! igaran laur urthetan etzidiela izan Errepublikaren promes faisiez eta gure Jaonen obra gaixtuez sobera kument eta satisfieit! Ez ni ere. Lehen urhatsaren egitiareki sarthu zen bide gaistuan berrogei-eta-zortziko Errepublika malerusa. Erran ahal diokegu Barkoistar laborariak izkiribatu zeitaden leteraren kunforme, izan ginela memento batez alagranzia handitan, ustez jinen zen khandiamentu handirik alde hunilat; ustez legarrak demenituko ziren. Fite jin zen khandiua, bena alde kuntrilat. Legarrak demenitu plazan berrogei-eta-bost zantimak ukhen zuntien. Ah! zer gizon banuak, zien urthe hartako deputatu jaonak; bata traidore bestiak indiferent. Klar da Frantzia trunpaturik izan zela ordunko elekzione miserabletan. Eta zer deputatu saldual! Zer kunstituzione bastart egiliak! Berrogei-eta-bederatzuko elekzionez badakizie zer phensa, nik heben esplikatu gabe. Napoleonek kanpo ezari dian azken khandibera nahasi horrez ere ezteiziet erran behar ene phensamentia; ez eta ere nur guntian hanko adiskidiak eta kuntrariuak. Atera gobernatu duzie zihaurien guztia. Dugun egin esperienzia handi bat: dugun ikhus lan-eginaren erresultat ederra. Zazpi miliu eta bost ehun mila



botz mintzatu direnez geroz tenpesta izigarri bat bezala, utzi behar dugu igaraitera Frantziako Popularen jumentariaren Kunsleiak, *Conseil d'Etat* Frantzesez deitzen dugunak presentatuko dutu lege berriak, bere haitzuko konseiler elibat kargatzen dutilarik lege hoiien esplikatziak eta defendatziak zien deputaten aitzinian, Herritar ezinago-maitiak. Deputatiaren eginbidia izanen da behar den bezala botzaren emaitia; legia hun dela uste badu haren sustengatzia; legia gaixto balitz haren errefusatzia. Lanik difizilena izanen da legar, phetxa eta kuntribuzione ororen kalkulatzia: despendio guzieren erreglatzia, amorekatik eta laborariaren azken erresursa eta azken ardita gal ezta din leze ezinago-barna hartan. Ni igor nezazie Pariseko Senbladala; eta zin egiten deiziet khuntiak errendatuko deitziadala deputatien ezpata bezain zorrotz, herrurik egin gabe? Bego surbeilantza hori ene eskietara.

Nur nahik badaki azken erreboluzione huntan egin-ahala egin-dudala bakiaren kunslerbatzeko gure departamentian. Jinkuak badaki ene goguari eta bihotzaren berri, nahi bada ezta din gaseta huntan lekharik zier egun erraiteko zer esparantxa plazatzen dudan bake benedikatu huntan. Zer dugu txerkhartzen? Frantziaren irus errandatzia, orai artino plainigarri izan dela beitaigu. Laborariak orai dutian karga pheziak nahi guntuke oro arhintuxe, eta hari eman orai falta dian aisetarzun bat. Dugun ikhus eia Napoleoneki batian erreusituko dugunez. Marinelen kapitain batek itxas-portiala bere untzia gidatzen dian bezala dugun segi direkzioerik hobena. Bena kapitain horrek ezpalin badaki bere kunpasaren armatzen eta bere bidieren untsa irakurtzen izarretan, klar da herratuko dela eta galduko dela itxasuan bere untzi, marinela eta emigrant ororeki. Zer desiratzen ahal du gizonak mundu huntan? Desiratu behar du kuntzentzia hun baten ukheitia; lan doi bat; bere izerdiaren errekuropa justua; legar guti eta zor gutiago; gogoa argi eta alagera; bihotza kurent; osagarria nik orai bezalako; eta molsan urherik ezpadu ere, falta gabe behar orduko behar den zilharra. Aski ageri da lan bortxatiak eta triste izatiak eritzen dila gizon nekazalia; bena ezari gabe gobernamentia medikutzat, erran ahal diokegu gobernamentu hun batek prokura ahal ditzakila mentzitu dutugun abantaila agradable horik oro. Uskaldunak bezala gizon galant eta agudo diren laborarier. Halabiz!

Hauxe duziela hitz gutitan gure oraiako Kunstituzione berna, Napoleonek egin, azken aldiko botzketan populiak eman zeion photeriaren berthutez, eta zien arrapostariaren arabera. Behar deitzi markatu artikulu prinzipalak.

Lehenekorik: Luis-Napoleon Bonaparte izanen dela hamar urtez Errepublikaren President, eta oraiako Errepublikaren gobernatzia haren esku, nausi izan behar beitu. Jaon Presidenta hiltzen balin bada hamar urthiak gabe, Senatoren senblada batek Frantzia deituko dila botz emaitera president berri baten izentatzeko. Jaon Presidentak badukila zuzena Senatore hoier emaiteko begiratzera akte segret bat, zuintan ekharriko beitu president gei gomendatuko dien presunaje baten izena.

Bigerrenekorik: Napoleonek izentatuko dutila ehun eta berrogei-ta hamar Senatore; lehen urthian lauhun-hogei. Izentatze hori eginik izanen dela Senatoriaren bizi orotako Senblada horrek fitsatuko dila Jaon Presidentak urthe oroz eta hamar urtez errezebitu behar dukian soma edo arranda. Senatore direla bere kargiaren faborez, Elizako Kardinaliak, luhamadako Marexalak, itxas-armadako Almirantiak. Jaon Presidentak akordatzen ahal dila Senatore jaoner, beren fortunaren edo zerbutxu errendatien arabera, dotazione edo arrunda persunel bat, haboruenetik urthekal hogei-eta-hamar mila libera.

Eta nula nobleziaren titre zaharrak arrestabliturik izan beitera, Herritar ezinago-maitiak, erremarkatu ukhen dut Senatoren lista berrian hogei-eta-zazpi printze, duke, markis, kunte eta haru; jeneralen, ministre eta deputatu izanen nunbriaren emaiteko ezta din denborarik. Jerome Bonaparte, printze zahar bat da Senatoren Presidenta.

Hirugerrenekorik: Badela *Conseil d'Etat* deitzen dugun Senblada bat; zerbutxu ordenariuan berrogei edo berrogeita-hamar konseiler. Jaon Presidentak haitatzen dutila konseilerak gustu zaion denborako. Konseiler hoiek preparatzen dutiela, gero presentatzen deputatien khanberari eta bere gisa defendatzen lege berri proietak. Konseiler batek badukila urtheko hogei-eta-bost mila libera soldata.

Herritar ezinago-maitiak, berme jarten nitzazie zien deputatien badukiela konseiler hoietan, botzak eman artino, kuntretzazale eta arrapoztu-emaile sabantik eta fierrik. Luis Napoleon dukie President.

Laugerrenekorik: Deputatuen khanbera bat izanen dela. Hogei-ta hamabost mila elekturrek izendatuko diela deputatu bat. Sei urtheren datila, duhainik eta kitorik, funzione hau. Sesione edo bilkhur bat deputatien etxekiko diela urthe oroz Parisen; ordenariozko hirur hilabetez. Luis Napoleonek haitatuko dila deputatu hoiien Presidenta Senblada hunek botzera ezariko dutila lege berriak, legar eta inposizione subertiak oro. Gisa horrek Napoleon kurent izanen da, nur ezta din deputatien erremestiatzen, khanbera berri baten galtegitoko sei hilabetetan barren.



Hor duziela Ilaburski, Herritar ezinago-maitiak, gure Gobernametu berriaren misteria. Aisa da kunprenitzen. Nulako arbola halako filia eta frutia. Ageriko da zer izan den erresultata. Nik eztakit orano zer lege proiet presentaturik izan den khanberari. Dakidana da mila miliukaz dabilzala Frantziako legarrak eta despendiuak. Laboran batek jesaiten badu ehun-bat luis, kuntratuz eta ipotekareki, urthe baten, krezanzerari phakutzen dilarik ehunaren bost, largatzen du notariari eta kuntroliari ehunaren hamahirur. Oh! zer intres ederra! Bada Frantzian ehun mila abokatu. Ene kunplimentiak prozeskarier! Justizia hunak preziorik eztu: bena uduri zait prozedura bazter gabe hori khario khostatzen zaiola populu miserabliari. Trunpatzen ezpaniz xifre huntan, paper markatiak solamente thirutzen du urthian gure departamentuti hamasei eta hamazazpi ehun mila libera, umen. Gure ipoteka zorrak nura heltzen othe dira? Ehun miliuka dabilala diote. Mahats-arduak badu bere legarra; zuin lekutan uhaitzeko hurak ere bai: Zeluko airiak eta leihotik hartzen dugun hatsak ere bai. Aski den! Bena nula pipazale beniz, aduanaren zerbutxia eta kontrabandistaren kunsoliua arrakunratu nahi gunuke beste bidez. Ni niago Frantziarik kanpo gure dihariak galdu gabe, legar sistema berri zunbaiten maneraz, pipazaliak ez othe diane egun batez baratzen ikhusiko tabak-ostua, belhar nezesari bat, beste belhar hunak bezala.

Erran deiziet, Herritar ezinago-maitiak, deputatu berriek eztiela errezebituko phakamenturik aldi huntan. Ene aldeti kofesatuko deiziet net agrada zaitala duhainik eta bere khostuz deputatu bakhotxaren Pariserat juaitia: ezpeita aberats izan beharrik holako eginbide baten kunplitzeko. Manera horrez Tipi Urruñako bertsolariak eztu emanen berrogei-eta-bederatzuko elekzionen undoti eman zutian khantiak bezalakorik.

Deputatu berriak juan dire Parisat
handikan ethorririkan guateko abisa,
Aberatsek hautatuz zein diraren gisa;
Populuaren gostuz trionfan dabilta.
Bizi dire ontsa.

Hogei eta bortz libera dute eguneko.
Ez da jornal handia jaun horiendako.
Ontsak bazkaldu eta arrats airetako
Gizon alferrak badu despendiua franko
Gostuien hartzeko.

Herri hautan ibili da kalomnia franko.
Chaho etzela behar diputatuko.
Hoberena daitzat dela laborariendako;
Bertze bandako hoitarik bide dugu franko
Gure jenatzeko.

Etsorta eder batez konsolatu gaitu.
Laboran guzia nahi du kunserbatu.
Khargutako gizon hoieri etzaiote gustatu;
Zeren nahi ziotzaten errentak gutitu,
Ez dute ametitu.

Urruinako bersolariak untsa egin zukien ber denboran Biarneser aplikatu ukhen balutu kopla horik, Uskaldunek beno milatan hobeki merexitu beitzien kunplimentia Biarnesek. Renaud Garazikua izan da azken urthe triste hoietan zien kunfidanzazko gizona; Renaud Uskaldun leiala, eta bethiz geroz ene adiskide arrarua. Beste deputatu oroz mintzatzera, Herritar ezinago-maitiak, erran ahal dioket ihuri ere ezduziela eni bezain beste botz akordatu; eta Biarnesek bere aldeti jeloskeria txar bat utzirik imitatu ukhen balie zien etsenplu huna, Departamentuko lehene-tarik nintzatekiala. Jinkuak eztu permetitu, arauz denbora hoberik ikhusi behar beitu eta egunko eguneko begiratzen benundian zeluko jaonak. Eztuzie menturaz ahatze nula berrogei-eta-bederatzian. Biarnon sarthu nintzan lehen egunian, ukhen nian malur bat, eta nula egin nian karroxa txarreti erori faxus bat. Uste zunien hanitxek, hala barreiatu beitzen berri tristia, hiltzera ninduela, hilik ezpanintzan. Eta ordian, Herritar ezinago-maitiak, sekulako adio bat bezala, hil lili bat bezala, jin zeitan ohera, hogei milakaz zien sufrajen nunbre uhuragarria. Eskerrak deitziet zien amastiaz eta fideltarsunaz! Uduri zait egun Jinkuak deitzen naiala Pariserat. Eta Biarnoko bidetan erori eta hil abantzu nintzan bezala, behar dudala aldi huntan hiletarik phiztu eta jeiki, Uskal-herriak ene bere esku azkarra emanez eta hogei-eta-bederatzu-gerrenoko elekzioniaren berthutez!

Salutatzen zutiet bihotzez!

Ariel, 1852-II-19



XIV
Preces Sancti Nersetus Cantabrice

1.

Fede bizi bateki aithortzen zutut, sinheste eta adoratzten, Aita, Seme eta Ezpiritu-Saintia; hatsarre eta urhentze gabezko izatia; Aingurien eta gizonen, eta gaiza ororen egile, Krezalia.

Ukhazu, Jauna, pietate zihaturen kreatura eta obretaz.

2.

Sinheste azkar bateki, aithortzen zutut eta adoratzten, Argi bakharra, zihaur berartan, hirurtarzun saintia, Jinkotarzun bakotxa; Egunaren egile, gaiaren argizalia; hurrunt itzazu ene gogotik, bekhatiaren uduripenak, eta ene utsumentiaren odei ulhunak; bazter itzazu orai danik; amorekatik ene othoiziak izan ditian zure bihotzaren arau, eta hun etsi ditzazun ene galt-huak.

Ukhazu, Jauna, nitzaz pietate, ezi bekhatore handi bat nuzu.

3.

Gaganeko Aita, Egiazko Jinkua, zuinek igorribeituzu ardi herratien unduan, zure seme ezinago maitia; bekhatu egin ukhen dit, Zeliaren kontre; hutsetan erori izan nuzu, zure tronuaren aitzinian: har nezazu seme prodigua bezala, eta bekhatiak bilaizi naian, hatsarreko arropa xuriaz besti nezazula.

Ukhazu pietate zure creatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

4.

Jinkuaren seme, Jinko egiazkoa; aitatik sorthu izan ziradiana; Maria birjina saintiaren sabelian, gure arraerostiagatik khorpitz eta aragi hartu duzuna; khurutxian itzaturik, gero ehortzirik, hiletarik phizturik, eta Aitaganat igain iran ziradiana; bekhatu egin dit, Zeliaren kuntre eta zure begien aitzinian: nitzaz othoi ohart zite, uhuin penitentaz bezala, zure erresuman sarthuko ziradianian.

Ukhazu pietate zure obretaz eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

5.

Jinkuaren Ezpiritu, egiazko Jinkua; Jordaneko uthurriala eta zena-klietara eraitzi ziradiana; batheiuo huretzaz argitu eta xahatu ukhen nauzuna; bekhatu egin dit zeliaren kuntre; zure inspirazioniari buhurri izan nuzu: garbi nezazu berri-berritan, zure

Apostoliak susko mihili batiaki, xahutu eta garbitu zuntian bezala.

Ukhazu pietate zure obretaz eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

6.

Bethierezko natura dibinua, bekhatu egin dut zure kuntre, gogoz, bihotzez eta khorpitez: Etzitalia othoi orhit ene orai artinoko bekhatiez, zure izen saintiaren amurekati.

Ukhazu pietate zure obretaz eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

7.

Begi zorrotz, gaiza ororen ikhuslia, zure kuntre bekhatutan sarthu nuzu gogoz, elhez eta obraz; borra itzazu nitan, ene bekhatiak ezari ukhen zutian herexa eta seinaliak; ene izena aldiz izkiriba bizizko libru saintian.

Ukhazu pietate zure creatureez eta obretaz, eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

8.

Gordezko phensamentu ororen ikherzalia; zure kuntre bekhatu egin ukhen dit, nahiz edo nahigaberik, jakinez edo jakingaberik: ogendant nuzu, othoi ene bekhatiak pharka itzadazu, ezi ene batheiuo sortzapen berriaz, geroz, thaigabe zure Jinkotarsuna ofensatu ukhen dit, egunez egun, aragiaren eta khorpitz ororen indar gaixtuaz.

Ukhazu pietate zure creatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

9.

Gaiza ororen begiraria; zure beldur saintia izan dadila ene begirari; ene begiek ikhuz eztezen, ene beharriek entzun eztezen, behar eztenik; ene ahuak erran eztezan gezurrik; ene bihotza eztadin izan bekhatiari injogi; ene eskiek eztezen obra gaizkirik; ene zankhuak eztitian ebil, bide



xuxeneti kanpo, gal eta herrapidetan: gida itzazu ene urhatsak, ebil nadin zure manu saintien arau.

Ukhazu, Jauna, pietate zure kreatureez eta nitzaz; zeren bekhatore handi bat nuzu.

10.

Zu, Khristo, bizi uthurria, phitz itzazu ene arima baithan, zure amuriaren garrak, zuin mundialat ixuri beitutuzu; ene goguaren eta khorpitzaren theiutarzunak'l erra ditzela, ene izpiritiak argi, eta ene bihotzian zure jakitaiaren eta zuhurtarzunaren argia phitz.

Ukhazu, Jauna, pietate zure kreatureez eta nitzaz; bekhatore handi bat nizalako.

11.

Jesus, Aitaren zuhurtarzun, emadazut zure dohain ezinago preziusa, amurekatik ordu oroz obra hunetan ukhen dezadan gogua, eta ezpiritia; obra hunak laida eta egin ditzadan, zure begien aitzinian. Begira neza zu gaitzetik ene phensamentu, obregin eta egin bidetan.

Ukhazu, Jauna, pietate, zure kreatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

12.

Jauna, hunki egile eta hunki orenen maithazalia; boronthate orenen jabe ziradiana; enezazula utz ene gogo gaixtuaren arau ebiltera, bena lagunt nezazu gisaz nun, untza denari buruz jarraiki dezadan bethiere zure boronthate saintiaren bidia.

Ukhazu, Jauna, pietate zure kreatureez eta nitzaz; zeren bekhatore handi bat nuzu.

13.

Gagaineko erregia, egin izadazu zure erresuman jargia bat, hitzeman duzun bezala zure haituzkuer, gogort ezazu ene bihotza, bekhatia hastio eta hugu ukhen dezan; izan zite haren amurio bakhotxa, eta zure borontatiaz haren aitzindaria.

Ukhazu pietate zure kreatureez eta nitzaz, ezi bekhatore handi bat nuzu.

14.

Kreatura guzien begirari eta bizitpidia, zure khurutxe adoragarriaren seinaliaz eta itzalaz, begira itzazu ene ezpiritia eta khorpitz bekhatiaren inganuetarik, Debriaren inspirazionetarik, gaistuen khozutik, eta ene arima eta khorpitz ugurukitzen dutien etsai orotarik.

Ukhazu pietate zure obretzaz eta nitzaz, ezi bekhatore handi bat nuzu.

15.

Jesu-khristo, diren guzien begiraria, heda ezazu nitara zure itzala, egunaz eta gaiaz, ala izan nadin ene etxian jarriarik, ala bidetan ebili, edo Io, edo iratzarriarik, beldurrez khordoka nadin eta therebuka zure aitzinian.

Ukhazu, Jauna, pietate zure kreatureez eta nitzaz; bekhatore handi bat nizalako.

16.

Jinko, adorutzen dudana; zuinek zure eskia zabaltzez, zure miseri-kordiaren duhainez kreatura guziak aberasten beitutuzu; ene arima zure eskietan diagozu; gogo emazu ene ezpiritiaren eta khorpitzaren beharrune orori, bizitze labur huntan eta bethierezko eternitatan.

Ukhazu pietate zure kreatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

17.

Artzain agudo, ardi herratiak korraletara bilzen dutuzuna, gibel nezazu kostuma gaixtuetarik; eta indazut inklinazione hoberik; sar-eraz ezazu ene arima baithan hiltziaren egun eta oren lotsagarria, bethierezko suiaren izimentia, eta zeluko erresumaren nahikuntia, amurekatik ene bekhatiaren dolumenaz harturik, enadin sekula bazter justiziaren bide xuxeneti.

Ukhazu pietate zure kreatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

18.

Bizitze muga gabiaren uthurria, elkharaz itzazu ene bihotzetik egiazko dolumenaren nigarrak, Maidalenaren bihotzeta bezala; mundu huntarik jelkhi beno lehen ene anima bere thonetarik xahaturik izan ahal dadin.



Ukhazu pietate zure kreatureez eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

19.

Zuk, Jauna, zure miseriardiaren aberastarzunak esku bethez barreiatzen dutuzuna, indazut eni grazia, egiatzko sinhestian eta obra hunetan bizi nadin; eta zure odol eta khorpitz saintiaren komunioiaz izan nadin partheliant, zure gana hel aitzinian.

Ukhazu pietate zure obretaz eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

20.

Jauna, hunki orenen uthurburia, indazut lagunetako ainguru begirari bat; ene arima bakian exeki dezan, eta begira nezan, ene urhatsetan, Gaixtuak hedatzen deitzan Sepphuetarik.

Ukhazu, pietate, zure kreatureez eta nitzaz, bekhatore handi bat nizalako.

21.

Khristo, argi egiatzkua; egizu, ene arimak merexi dezan, bostario handireki, zure loriaren argiaren ikhustia, zure ganat ene deitzeko izentatu duzun egunian: eta haiduru naguelarik zure azken agertzian egun handia, jin artino, pausa eta deskansa dadin, hunen eta zuhurren artian, haien egongia laketgarrietan.

Ukhazu pietate zure kreatureez eta nitzaz; bekhatore handi bat nizalako.

22.

Juje, buruzagi xuxena, zure Aitaren loriareki bizien eta hil orenen jujatzera, eraitsiko ziradianian, othoi etzitila sar judiziotan zure sehi zerbutxariareki; bena ifernietako suietarik begira nezazu, eta erakuts izadazu, Justuek eta Saintiek bethierezko erresuman ukhenen dien bortaria.

Ukhazu pietate zure obretaz eta nitzaz; ezi bekhatore handi bat nuzu.

23.

Jinko ezinago miseriardiusa, ukhazu pietate, zutan sinheste hartu dienetaz, enetzaz bai etare bestenetaz, ezagunetzaz eta bestetzaz, bizi-rik direnetzaz eta hiletzaz. Pharka itzazu ene etsaier eta isterbegier egin

deistaien gaizkiak; eta egin gei deistaienak enpatxa; zure miseriardia merexi ahal dezen.

Ukhazu pietate, kreatureez eta nitzaz; zeren bekhatore handi bat beniz.

24.

Jauna, argiz eta loriare beztiturik ziradiana, beha zite zure zerbutxariaren othoitzari, eta kunpli ezazu ene hobetan, zuri igorraiten dutudan deithoriak; hartze dudalarik jakile eta arartekaritako, Jinkuaren ama, ezinago saintia, Jundane Juhane Bautista, Sant Esteben, martiren artian lehen, San Gregori gure argi egilia, Apostolu Saintiak, Profeta, Doktore, Patriarka, Eremita, eta Berjinak, zelian eta luman diren Saintu eta Santa ororeki.

Eta zuri aldiz, Hirurtarzun saintia, eta ezin berhezia, loria eta adorazioniak, menderen mendetan.

Hala-biz!



XV
Annibalen kantua

Xori kantari ederra,
Non haiz aspaldi kantatzen?
Hire boza dik denbora
Nik ez dudala aditzen
Ez egunik, ez horenik,
Nik ez diat iragaiten,
Non ez hitzaitan oroitzen.

Gure mendien oinetan
Afrikan sorthu gizona
Zohan galdez soldadutan,
Etzen gure ezaguna.
Romano ez zuten bilhatzen,
Gure aiten gidal ona,
Zutelarik ezagutzen.

Gure gazteak oihuka,
Annibali hasi ziren:
Ethortzen gaituk murruka
Bai hire ustearen,
Onak bagare hirekin,
Guanen kontra munduaren,
Romanoen gaixtuekin.

Ilkhi ginen oren hartan
Lo zaudela emazteak
Bere haurrak bulharretan,
Xakhur etxe zaintzaleak,
Etsaian eman zaingotan
Guk ixil hetsiz atheak,
Harin baikiñen zainetan.

Asko egun da geroztik
bagan, gu gabiltzala,
Zalhuak izanagatik,
Loz urrun bizi garela,
Aitzindari Afrikatik,
Rhenoa Alpak bezala,
Gibelat nonbait utzirik.

Sarthu gare Italian,
Ebroko gaiak iduri.
Bazterrak dire gaindian,
Un eta zilhar jari,
Hain aberats den herrian
Izara etzait ageri,
Ez ama ene nahian.

Diote ilabethean
Romako hin handian
Sarthuz eskua urrean
Zarpa dugula aisian,
Betheko oren onean:
Nahiago dut mendian
Maite utzi urrunean,
Bilhatu ibiliz ganian.

Xori kantari ederra,
Kanta zak, kanta emeki,
Ondikoz gaizki beharra
Munduan enaiz bizi naski.
Utzi dut haran ederra
Nigarrik ez duket aski
Utzirik hango izarra.



XVI
Jean Baptiste Chaho:
Barde baten izaitia

Ezta batere poet bat, zuinen handitarzunak mundia bethe din bat proposatzen dudana aipatzera irakurtzaliari obraxe llabur huntan. Ezta eta genia ezaguturik eztien hetarik bat, Gilbert-en eta Chatterton-en talentu handiez geroztik egun oroz hiltzen dien manir minbera hetarik bat.

Nuri ere kontsekraturik dien lina hoiek da Mendietako kantore huntzale praube bat eztinga deus komunik ez suertien naturan, haren inspirazioen sursak, ez eta ere haren kantore forma denbora llaburretan konposatu hoieki, zuintarik bers erdi pasable zunbait akordatu dialakoz pausatzen beitera sozietatiaren biktimetan guti axol dien xitxatera inutil hoién haztia eta her imajina ezartera deitzen beitie gerua presenteko denboraren faltan.

Artikulu hunen heros inprobisatur modestak ezpadu entzun bere izenaren herotsa olhen alde haraintila, nun haren kantarién eztingaruna entzunarazi izan beita; ausart niz nundi nahi erraitera *poète* guti dela, zuinen karakter orijinal eta abenturek merexi beitie haboro interesatzia, istudiatzera xerkatzen dienak oro gizonaren inspirazioen obretan, biziaren *phenomène* subertiak, ala xantrik (destin sozialen araua) kharreia dezan hiriétako bestimenta brilanta edo aahorretako, abitu sinplia.

Idereiten dira herri muntainen zunbaitetan bena partikularzki Pyrenésetako phartian, uskalduneh habitatia, *artiste populaire* klasa bat nun desinatzen beitie heben kantazalen izenaren pian, han berset egilen pian eta jeneralki Barde izen orijinalaren pian.

Denbora zaharretako lehen poetistek bezala montainako Bardial kunserbatzen du animatzeko pribilejio preziosa haren bots propiaren akzentek, imajina eta figurai, zuintaz hazten beitu bere pensamentia. Poetari haur, zibilizazio handikua, artia fixatzeko hitz izkiribatiaz bere hunaren prinzipiuak. Bardan, naturaren semia, buhureki exprimatze dohaina majika segur batez gizonak esprabaten ahal dina.

Poetak ezta sekula bere solituda hartzen bere spiritiarein lainhuz leherpaturik baizik edo hurrunezko imajinazioen plazadore.

Bardak, harek kantatzen du zelu sereno baten pian, batin bilkhura auditer alegera baten erdian, gidatzen beittutu bere imajinazione beruaren

suertez, bestin okupatuko gutinak bezala natura salbaje baten harmonien erdian, bere himna solitariak dominaturik.

Lehenak kuntatzen bere ideiak lanpa baten argin, bederabedera, abariziusak bere pheseta urhik bezala. Bigerrenak urthukiten tu aizer orori bere tresor hunak ekhiaren argin; hitz batetan sozietateko bi personifikazioe hoietan den diferentzia da, poetak phensatzen eta amets egiten dila, bardak eztinga senditzen baizik, eta hortan barda da esenzielki arau-gizuna, harmonia-gizuna, zeren bere spiritian fantuma inspitatur ezar plazan, bere inspirazioiak eta botza jezarten beitu Jinkuari berari, mundiak erakutsirik.

Bada bi forma hoién artin, bata ideiatu, bestia positibo, imitazioia edo gezurra egiti separatzen din distantzia oro, naturaren artia.

Bardiak oro poeta dira, zunbat guti metra fabrikant eder barda dira bere aldin! Eta bardak jokatzen din roliak zerklo hertsu, nun phesatzen beita bere izarra, haren misionia limitaturik izateko ezta gutiago util, gutiago digno elojioz eta enkorajamentuz. Erranen duta efeitian?

Barda egoiten den gunetan da orano errepresentant bakoitza, arte popularila helturik uste izan den bakoitza; arte hartarik, zuintarik realizazioiak behar beitu izan gizonen ororen progresaren buta eta thermainia. Ruinaren botzak buhatzen dilarik, tenpliaren alde pin deitzen badu populia sakiala edo erhautzila eta ezpadu erakusten punizioe baizik lurrin eta mehatxu zelin, bardaren botzak gazte eta fresk urthe oroz arra berritzen den natura bezala galthatzen du *a countrari*, lurrezko hunila eta alageratarzunila, eta behin beno haborotan aphezen irurziriak khetan hil ziren kantore egile nunbre baten errier.

Progrès mobilier bakoitza buru emaitia diana, aphezian dien zentzu eta kalkul indarren ororen kuntre, lurriko barda da ignorante eta jakintsia.

Uhure arren mila aldiz kantazale inkulte eta salbajari, zuinek beste gidarik gabe bere gizon intelijent instinkta baizik, argiarazten beitu haren anaien erdian, flanbeau sakratutik txinkha zunbait, zuintaz llaburtarzunga markaturen beitu spirituko lottintako dilibrantzako eguna.

Pyrenék formatzen dien aphaltziarekin ekhi sargugiako itxasuen gaintin, kartielik alagerenatarik batetan, sorthu zen orai dila zunbait urthe gizon bat markaturik martiro triste baten harenen zortin izatera.

Muntainer aisatu baten, nahi bada ez aberatsen, lehen sorthia zen, eta titre huntzaz hartan gainen phausatu behar zien naturalki haren familiaren eta jaben esperantzak.



Bena haur horrek naturaz osagarri flaku, kolorik txar eta mehe etzin kausatu gisala haren aman haur minetarik landan ordenariz jarraitzen diren alageratarzun biziak.

Bere biziak bersez egin din errelazionin urthetik urthila tribulazio-nen semia plainu da kharazki, nulako huguntarzun hainatziarekin tratatzen zin sabelin kharreiatu zianak, aldiz bere anaie arrebak preferantzaz karesatzen zutialarik. Erakasteko hitz batetan, harek ezarten zin role mesperetxatu eta malerusin, jakin arazten deiku klarki nuiz eta ere familiako ogia erreazten beitzin, haur bakotxa zela, zuini ezpeitzon sekula emaiten usanzazko ophila kasu huntan.

Mithilek berek bazien nahi izan zien bezain beste haren joiteko permissionia; ordian, erraiten deiku, sarthu zen haina haren bihotzian.

Thurmentaturik unguraturik zen orotaz, berartan arraplegatu zen, berarthan lili bat zerratzen den bezala dolore baten efeitaz, eta haurra senditu zen ikhasteko desir biolent batez thurmentaturik.

Haren herriko errejentak erakasten ahal zeion gaiza gutia, ikhasi zin eta arrestra urthe batez.

Bederatzu urthetan othoitu zutin bere aita eta ama eskoletarat igortez, bena hoiek despendioa kalkula eta guti disposaturik haren faboretan defendatu zioen phensatzia. Phensatzea, imposible zen.

Haurrak nigarregin zin ikhustez bere anaia hura beno errejent hoben pin.

Libru zunbaiten laguntguaz, eta Jinkuk daki zuin libru prokuratzen ahal zutin, hartu zin difikultater orori gainiaren hartzeko deliberua.

Egunaz trabailatzen zen alhorretan eta gaiaz jaten zutin begi gose libatez haren inprimat phorrokatiak, khandera errezina baten argi ulhunnin.

Ikhasi zin halaxe frantzes amiñi bat, bena aharrak kontinuelak, min bere aplikazione ezinago handia beitzen bere askazien pharteti sujeta, obligatu zien haren projeter errenonziatzera, hurrunago jüitera.

Mithil brutal bat, deitzen din bezala, karguturik izan zen haren surbeilatza eta largatza korpitzeko lanila, haren membre flakiak eta mehiak akhitarzunak xahu phorrokaturiko beitzutin.

Enfin amoroskeria jin zen erortera zuen arima haren barna, zeluko arreia baten sarreraztera, eta plegatzen zenak karga phisu libaten pin, arraaltxatu zin fierki bere buria, lanthare bat beroti laudan ebri fresk eta ezti batetan arra jaikhitzen den bezala.

Xori dibinuak, presuner poitrina humano hartan, eraiki zin bere ramaje ederra, eta kanpainak mututu zien haren behatzeko.

Hi hundin lehenik kantatu, birjina gazte eta xarmanta, gordatzen behintzan hire modestiaren bollaren gibelian, fruta huntia haren ostope-tan bezala, hik haren khantu alageretan, deitzen behin bedera-bedera, goizankho epher eijerra hedatzen zina haren lephua lilieta, sorhoko lili parfumatia, ekhiaren figuraren arresa, ilhe elhurrezko arresa, gaiatzko zelu serenun argitzen din izar solitaria!

Bena maleruski, untsa-maithatia, haren kantorezko inspirazionen sujeta, etzen edertarzunak beste lekhetan bezala urhe produisiarazten den lekhu batetan. Bardaren anthusiasma etzon zerbutxatu bere aitaren haina terribliaren atiratzeko baizik, orano *tout a feitoki* sofritu etzin bakotxa.

Praubeziatzko aizo familia batetako neskatila gazte bat maithatu zin. Esperantzarik gabe bakhoitzi; eta bakiaren idereitia desiratzen beitzin, obligaturik ian zen haitatu zaion espusaren utsiala azeptatzera.

Heben hasi zen disgraziatzko haurrentako, nigarrezko denbora bat, zuin bi phartetan izan beitzen, presontegietako bizitzia eta desertietako abenturaren izatia.

Haren proses zibil eta kriminen detail sobera luzian sarthu gabe, sarthu gabetarik haren familiarekilanko hanaspuiletan baratuko niz bere bizi orotan emaztek erakasten infidelitatearen *feit* printzipalin.

Eztut disimulatzen batere gazizki jin nizala morala sesius baten kestionearan tratatzera; aragizko obra, sozietate baten erdin libratzenbeitu gai oroz ikhusliarren karkasetara triate baten tauletan gainen, zuinek destruisitzen beitu familiaren saintutartzuna, eta familia indibidueletarik familia jeneralila estekatzen dien jaben desorganizacionea akonplitu.

Feitian edok ezazie gizonari bere askarkikuetik etxekitzen tin kondizioniak, haren uhuria, haren dreta bere zitoien laguneren eztunian, bere etxetako alageratarzuna eta bakia; gizon hori zikin eta, ez axol bada, haren erri inbixiletarik bat ukhenen duzie, irri bat zuinek bihotz min emaiten beitu, eta *à kuntrari* gizon hori errealki gizon bada, *sustout* balin badu karakter borthitz bat eta pasionatu bat, juntatzen dizu kolera heraki bat, gizon hori ezta ordin bere fortuna eta bizi heno hanitxe preziosago den integritatiari khuntu emaiteko inkapable den sozietate batetako legeti kanpo baizik ezarriko ahal.

Ukhenen duzu ordin zure legiaren arabera edo asasin bat jujez defendaturik delitaren zirkonstanzian gainen, edo bestila suposaturik espus mesperetxatia eztela jinen ofensatu undun denbora zunbaiten burin baizik, heltu den bezala gure bardiari, epher bat obligaturik justizia bati



eskapatzeko desertutarat ihesi egitera eta han bizi solitario baten eramaitera.

Hala zen bizia iskiribatzen dudanaren xortia, eta heben halere, desorganizazio sozialezko konsekuenziak eramaiten din aragizko obra kharazki da azken *degrès-in*.

Georges Sandek, egia da, eluke phenarik eni probatzez aragizko obra eztela batere nik errepresentatzen dudan bezain mustro afrus bat. Bena zara-boila gabezko sophiste horri erranen dot eni erakastez Pyrenées-etako Barde gaxo horrek zer phensatu behar lukin plazaturik izan baledi gai batez Variazionezko eta *Vaudevillez-ko* triatian.

Erranen dot ber feit sozialak kanbiaturik dien erhokeria gaiztuetara, bufunerietara, argizko hiriaren erdin traduzitzen diela bestetan odol ixurtez, zuintzaz ihurk ere ezpeitu erri egiteko inbeiarik.

Heben ere hanitzek egia erraitera, eztu erri egiten ezpain phuntez baizik.

Oposaturen deitade gaizen estatia, usaje errezebitia sozietatia hala eginik da, erranen deitade, prezizki hortzaz niz plainitzen, ezi eniz Jinkoti desesperatzen dien gizon hetarik bat, eta bardin ere fede badut hartan, humanitariaren salbamentian. Arte hortan deus ezteikio zerbutxa eskusatako progresez mintzo den sophistari aurdikitzen tilarik hitz phozuatu libatez geruaren aziak.

Beha zazie lehen bere denborako bizitze tristian gainen Bardiak konposatu din kantore eder sinalatu duguna.

Arrazunamentuk orok beno hobeki erakatsiko deitu zer den permis sinhestia gaiza saindu hoietan orotan gainen, zuintzaz gure denborako hainbeste iskiribañok egiten beitic egun merkhatu bat hain hunik.

ETXEHUNEN KHANTIAK

Mundin hanitz malerus arauz bazirie
Bena ez ni bezainik ihur beharrere,
Ene emaztiaren nahiz izan jabe
Gaxua jarririk niz ihun lurrik gabe.

Desertuko ihizik gizunen beldurrez,
Prekauzionatzen dira gorde beharrez,
Hurak nik imitatzen gaxua nigarrez,
Ere bizi tristiren kun(tse)rbi beharrez.

Hamar urthe huntan bizi niz esklabo
Erdiak gaztelian, bestiak gaizkigo,
Jeloskeria baten sujetetik oro,
Nahigabez izan adarren sorhaio.

Hogeietai urthik konplitu egunin
Hartu nin emaztia, ene sori gaitzin,
Erraiten ahal beitut izan zaitala jin,
Ene urkha bulhurra beraren altzopin.

Ezagutu ninian nur nian erosi,
Nahi ukhen nin bortxaz korrejierazi,
Bere jabe puisantak hari althe jalkhi,
Eta ni inozenta gaztelin etxeki.

Ene absenziari agertu aproba,
Zuinen fidelki zian eraman denbora
Harek eni doblatu bihotzeko herra
Bai eta ere kausatu galtzeko malurra.

Ene isterbegia bahu ene etsaia
Turristatu gabe ene emazte flakia,
Bestek eraman du hik behar kolpia,
Bena kupira diok orano hartzia.

Hire libertinajik eraman din finta,
Hireganat gogatez ene emazte flakia
Galdu duk bi etxalde, bi gizun galant
Bai eta ere thonatu hirur lagun xarmant.

Ene lagun maitia eta flakia
Libertin batek deian nahasi buria,
Galerazi naizu ni eta etxaltia,
Malerus errendatu oro familia.

Hamar urthez deitazu eman burian min
Haietarik bostez etxeki gaztelin,
Sekursik egin gabe nahiz han hil nendin
Halako emaztia nurk sofri saietsin.



Ene aita krudela, anaie desnaturatik,
Aberastu zideie ene malhurretik,
Prosesak eman eta ni kondenarazi,
Bai eta arte hortan bi etxalde ebatsi.

Ene sorthe instiri dia gizon gaztik so,
Ezkuntgei bazirie ez izan esklabo,
Emaztik ukheitekoz nik bezain khario,
Egin ziteie aphez edo jun soldado.

Musde Haritsabalet, jaun erretora,
Etzunin idereiten ogendun zure iloba,
Arauz sinhetsi duzu ikhus undun obra,
Jauna begira zizun zihaur enekilan.

Beste penitentzia deitazut eragin,
Ene etsaia etxen, ni aldiz gartzelin,
Nik deus nutinen jaten, etzaten ene ohin,
Orai aldiz nabilazu gosiarekin.

Adio haur maitiak, gaxo ogengabik,
Aitak eta amak triste ezarririk
Eztetzatiela jarraiki haien exenplik,
Zien prudenzietzat imita Jesus-Christ.

Barkoxeko lurretan ez xerka Etxehun,
Haren atzamailiak beitabiltza undun,
Bere kantoren huntzen ari da Igelun,
Halako olhalterik ezpeita Ziberun.

Hala zin kantatzen bere ihesian mendien gainen Pyrenéesetako bardiak, eta bildu zien artzainek bere olhetarat, beren urthe orozko stazioenen, behatzen zien admirazionereki sasü ederrin haritxik gorenetik haren berset indarrez eta harmoniaz bethiak.

Hen utzultzin lur aphaltetarat etzien mankatu bardiaren konplainten edizionen publikatzerä, zuin hedaturik izan beitzin instantin, nahi bada gutigo edo haboro desfiguraturik, bersionen segurtanxa ukhen gabez, orotan oiñu azkar bat jeikitzen kantazale inspiratiaren faboretan, handik

fite etzen haboro ihur ere han gaintiko bazterretan gloria bat egiten etzenik haren koblen gogoz ikhastez.

Entzuten zutien kantatzen mendi bizkarren gainen eta eskartaturik zien bazterrik ixilenetan.

Bardaren bizitzia hatik izaten ahal zen bezain triste zen.

Urthe oroz behin artzainak eraitzirik bortietarik elhurren erdin bera idereiten zen etzilarik bizitzeko denbora haborueta zain baizik.

Udan bizitzen zen basafurutaz hartzen artin arraroki hasardatzen ahal zen etxanetat eraiztera, xerkatzeko ogi, artho, eta hazkurri borthixiagi bat.

Ezin suporta ahalez hainbeste pribazione erresolutu zen azkenekoz arrisk orotara, bere lurrila arrajitera, eta etzin berantu justiziaz arrestaturik ikhustera.

Bere jujetara konparitu zen eguna zen muntainer desfortunatiaren-tako egun glorius trionphant bat. Haren erreputazione bardaskuak aban-zarazi zin deya hen kantila, suberte orotako kuriusak jujen kanberan ari zien zuinek lehen ikhus.

Ikhusi zien agertzen bi jendarmaren artin, taila ordenarioko gizun bat, bilhuak luze eta frisaturik montainerren mudala, gerrieren eta nuble-na beitzen arteko denboran, figurako aragiak mehaturik, bena begia odol-lez zainzturik eta brillant, gar estofatu bat bezala, sursils barrera beltz baten pin.

Urhats bat baizik etzin egin salan bama, nuiz eta ere esku batez edoki beitzin bere laboran buneta, eta hedatzen bestia largatu zen haren botz bizi eta purra hain ederki, nun justiziazko salaren arauk ezpeitzien sekula entzun magnifikuagorik.

Ixiltarzun handi bat izan zen harmonia baten gisa.

Haren lehen koblak kusekraturik izan zien bere jujen salutatzet eta hen elojiaren egitez hain thermaño dignez eta beratarik hain flaturrez, nula esku joitekak bazter orotarik phartitu izan beitzien.

Gero bere diskursa jarraiki zin haren desfortunen kuntatzez, jakin ukhen beitzutin bestitzen portrait berriz eta hanbat haboro gloriusez.

Deya irakurten zien figuretan haren kausa erdia beno haboro irabazirik zela.

Hantik fite bere justifikaziolari estekatzen zelarik zankhozzankho, pleteiatu zen kantatzen haren kausaren phartiak oro, konfonditzen zutilarik jakiliak, desmaskatzen zutilarik bere etsaiak, estonatzen zutilarik batziak eta bestiak; etzen hazten bere imajinazione berua majistraten suek berek sustengatzen zien indarka nuble hortan.



Orok memento hartan mintzatzen eta khantatzen zien poetaren ahotik eta xilinxantzen zien suberte zunbaitetan haren phensamentiaren hariari, ikhara zielarik nuz ikhusiko zien etheiten, eta geroko instantin alageratarzunez airaturik idereitez bethi solido eta azkarki oro pilaturik eskujoite libat finik gabe eta akitazionezko oihiek jarraiki zien huilantik diskurs plainugarria eta modesta.

Hala zen harentako ordilartino jokatu zin role funestetik libratu.

Nahi dit duda gabe haren kantoren nubleziak eta inspirazionik berek eztien pur ezarri haren juven aitzinian.

Ezta gutiago egia inozenta deithurik feit brutalela, besten gaiztoeria brutalez, behar ukhen dela finitu bizitze miserable baten dolorez, krima bat ezpeitzen beria, eta obtenitu eszitatez haren udurien konpasionia, justizia-aren absoluzione beranta.

Bena absoluzione horrek, hain khario erosirik, errendatuko doia galdu dina, haren bihotzaren bakia, haren berthutezko erreputazionia menturaz? Ezi jarririk den bankek uzten die bethi orhitpen bat. Errendatuko doia absoluzione hau, haren familiako eretajia gastaturik eta janik haren absenzian prozes ruinatut libatez? Erremediatuko dia enfin, aital desesperazionin deitzen dira, espresione hain egia batez, haren haurren eskalbajetarzuna? Ezi bardiaren ideietan, praubia ezta besterik, asto soziala baizik esklabua.

Zer ideren du arrautzultzin harenenganat, arraikhustez bere etxia desertu, hainbeste urtheren sofrenxa eta pribazionen buruan. Baratzen nizlotsa nitzate denbora soberaz edukitzia luturraren spiritia hain sujet tristian, gure sajen eta lejislaturren meditazionen digno.

Nahiago dut historia jarraiki batez eman, zer ere baratzen beita orano gure bardaren biziaz.

Bere herrilat arrautzulirik praube ideren zen erran dudan bezala, diharurik gabe pleiteiatzeko perspektibo bakotxareki.

Konposatu zin amiablin haren familiarekin, gero eskandalen trazak begien pin ukhustera degustaturik, lotsaz berak erraiten din bezala bere errelazionin, gal zedin orano, hartu zin pelegri arropa, eta bere herriko jenter publiko adiuk eginez gerozti urhatsa eraman zin Errumari buruz. Urhatskal bere patriari hurruntziari, nigar elibat ixurten zutin bere haurren sorthien gainen.

Bisitatuz geroztik aita saintiaren hiria, Florencea errendatu zen, nun bere urhatsetara utzultzeko ideia jin beitzon, eta Jerusalemara joaiteko, han komentu vie aszetiko zunbaitetan sartzeko.

But hortara efektiboki jarri zen bidian, bena paperak galdurik presuner eginik izan zen Autrixieneseta eramanik Frantziala presuntegiz presuntegi.

Kurius izan zateken ezagutzez poetan gainen zer efeit produisitu zin zesaren eta pontifen hriko aspektak; bena haren errelazione llaburrin kumentatzen da errejistratziaz Erruman igaran din denbora, detailik bateretan sarthu gabe.

Zer egia erraitera signifkatzen ahal zien argi gabezko muntianer baten-tako historiako giltza etzin ruina eta monumentu libatek.

Naturaren punpala kostumaturik dien gizunaren begietara eta sasuen bariazionetara, esku murtal baten *chef d'oeuvre* elakikie eszitatez admirazione laguntza bat baizik. Arren ere bardiak phensatu dia dudarik batera gabe gisa huntako detailek etzukiela *atrait* xipiñi bat baizik haren muntainako beha-zalen.

Haren bidajien erremarka bakotxa aipatzera *à propos* jujatu diana argitarzunik gabe bere errelazionin erremarkable da; probatzen du populuko gizunari, obserbazione justuak bethi haboro jorik egitate biziaz eta mintzaziaz sozietatin deskubritzen dinaz, zein eta arrazu subtil libat kunparatzen beitu besten spiritiari.

Galerien zubu burian erraiten deiku, orhit da kuntaturik hirur aldiz hogezi forzat liberatu, galeretarik jiten zienak, hiruretan hogezi koki handi libertatin ezarririk, eta hori gizun unesta eramanik izaten ahal delarik zir-kunstanzia krudel elibatez lien lekhiaren hartzera. Horik dia gaiza libat errepetatzen entzuten dienak etxalte gaxuen zolan

Eri eroririk Nimesen, pelegria egon zen hanitx denboraz hiri huntako hospitalin desesperatzeko estatin.

Enfin arraikhusi zin Pyrenées-etako zelia eta haren sorlekhuko mendietako kukuila berdik.

Bere haurrak zutin plantaren ideiak khanbiarazi zen deseina entreprenitzez fres berrietan gainen bere Jerusalemeko bidajia, eta fixatu zen bere herrin, nun egun bizi beita trankil.

Enuke uste ahal ukheitia hobeki finitzen eskisa hau traduisitzez baizik azken bi ketreinak errelazione bersezko usaje egin dudana, eta nun ikhusten beita Bardaren bizitzia urthekal errepresentaturik kobla batez.

Bi kobla hoiek oro berririk emanen du produksione orijinal hortarik ideia bat.

Berrogei eta hameka dia ene urthiak,
 Orai nahi tut utzi munduko intresak
 Ezi esperientziaz huilan dut orena
 Trankilki ordin gizunak du kitatzen lurra.



Berset huntarik landan berrogei eta hamabi
Haur ofritzen dereiot ene Jinkuari
Galthatzen dodalarik haren tribunalian
Ene phenak ager ditzan ene faboretan.

Uskaldun mendien parkurrizko odazionia balin baduzu, zuin
Biarnekuen aizo beitira, galthe zazu arrakuntratuko duzien lehen haurra-
ri, Etxahun bardiaren berri, arrapostu emanen deizu kantatzez zuntzar
largo batez goraxiako kantore kopiatu dudan kobletarik lehena.